



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

# **JOLASA ETA GORPUTZ-ADIERAZPENA LEHENENGO HAURTZAROAN: ikerketa kualitatiboa**

## **GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Ortiz Retegui, Unai

ZUZENDARIKIDEA: Varela Pequeño, Mikel

ZUZENDARIKIDEA: Tresserras Angulo, Alaitz

# **2023**

# AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA</b>	<b>4</b>
<b>2. GAIAREN JUSTIFIKAZIOA</b>	<b>5</b>
<b>3. MARKO TEORIKOA</b>	<b>6</b>
3.1. HAUR HEZKUNTZA	6
3.2. LEHEN HAURTZAROAREN GARAPENA (0-3 URTE)	7
3.2.1 Garapenaren ezaugarri orokorrak	7
3.2.2 Garapen fisikoa eta motorra	7
3.2.3 Jolasaren garapena	8
3.2.4 Piageten estadioa (zentzumenei eta mugimenduei dagokiena)	8
3.2.5 Hizkuntzaren garapena eta garapen kognitiboa	10
3.3. JOLASA	11
3.4.1 Jolas heuristikoa	13
3.4.2 Jolas sinbolikoa	14
3.4.3 Jolasak duen garrantzia Haur Hezkuntzan	15
3.4.4 Jolasa eta gorputz adierazpena	17
<b>4. HELBURUAK</b>	<b>19</b>
<b>5. METODOLOGIA</b>	<b>20</b>
5.1. DISEINUA	20
5.2. INFORMAZIOA JASOTZEKO TRESNAK	21
5.3. INFORMAZIOAREN ANALISIA	22
5.4. TESTUINGURUA, PROZEDURA ETA PARTAIDEAK	22
<b>6. EMAITZAK</b>	<b>24</b>
6.1. MATERIALAK	24
6.1.1 Oihalak/Arropa	25
6.1.2 Objektuak	25
6.1.3 Musika-tresnak	26
6.2. MUGIMENDUAK	27
6.2.1 Estatikoa	27
6.2.2 Katamarka	28
6.2.3 Ibilera	28
6.3. HARREMANAK/ELKARREKINTZAK	29
6.3.1 Inongo harremanik	29
6.3.2 Elkarrekintzak haurren artean	29
6.3.3 Komunikazioa haurren artean	30
6.3.4 Helduekiko harremanak/elkarrekintzak	31
6.3.5 Helduekiko komunikazioa	31
<b>7. ONDORIOAK</b>	<b>32</b>
<b>8. HOBETZEKO PROPOSAMENA</b>	<b>34</b>
<b>9. BIBLIOGRAFIA</b>	<b>36</b>
<b>10. ERANSKINAK</b>	<b>41</b>
10.1. NARRAZIO ETNOGRAFIKOAK	41
10.1.1 IZARRA HAUR ESKOLA	41
10.1.2 SAN IGNACIO IKASTETXEA	57

## **LABURPENA**

Hurrengo Gradu Amaierako Lanak teoriatik eta 1-3 urteko bi geletako esperientziatik abiatuta, jolasa eta gorputz-adierazpena lehen haurtzaroan aztertzen du. Helburua da haurren portaerak eta elkarrekintzak aztertzea jolasari eta gorputz-adierazpenari begira, etapa horretan hauek duten garrantzia azpimarratzeko. Horrela, haur-hezkuntzako lehen etaparen garrantzia, jolasa eta gorputz adierazpenaren nondik norakoak eta lehen haurtzaroaren etaparen ezaugarriak azaltzen dira. Azterlana metodologia kualitatibo baten bidez egin da; zehazki, behaketa partehartzailearen bidez. Lortutako emaitza guztiak marko teorikoarekin alderatu eta indarrean jarri dira, ondorio batzuk ateratzeko eta, beraz, eduki teorikoa praktikarekin kontrastatzeko.

HITZ GAKOAK: Jolasa, gorputz-adierazpena, lehen haurtzaroa, elkarrekintzak, materiala.

## **RESUMEN**

El siguiente Trabajo de Fin de Grado, a partir de la teoría y la experiencia en dos aulas de 1-3 años, analiza el juego y la expresión corporal en la primera infancia. El objetivo es analizar los comportamientos e interacciones de los niños y niñas de cara al juego y la expresión corporal, para subrayar su importancia en esta etapa. Así, se explica la importancia de la primera etapa de la educación infantil, los entresijos del juego y la expresión corporal y las características de la etapa de la primera infancia. El estudio se ha realizado a través de una metodología cualitativa, concretamente a través de la observación participativa. Todos los resultados obtenidos se han comparado y puesto en vigor con el marco teórico para extraer algunas conclusiones y, por tanto, contrastar el contenido teórico con la práctica.

PALABRAS CLAVE: Juego, expresión corporal, primera infancia, interacciones, material.

# 1. SARRERA

Aurkezten den azterlanak, "Jolasa eta gorputz-adierazpena lehenengo haurtzaroan" izenekoak, jolasak eta gorputz-hizkuntzak haurtzaroko lehen urteetan duten garrantziarekin lotutako alderdiak jorratzen ditu, baita ikasgelako jolasarekin eta gorputz-adierazpenarekin lotutako dinamiken inguruko ikerketara hurbiltzea ere. Lan honen bidez, 1 eta 3 urte bitarteko haurren irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuaren barruan jolasa eta gorputz-adierazpena garatzen sakondu nahi da, honako alderdi hauek kontuan hartuta: material mota desberdinekiko harremana, egiten dituzten mugimenduak, haien arteko elkarrekintzak, helduekiko dituzten harremanak...

Lehen adinetan jolasak garrantzi handia duela uste da; izan ere, hainbat ikerketek eta irakaslek jolasa praktikan jartzeak haurraren bizitzako lehen etapetan duen garrantzia berresten dute, garapen integrala eta ikasteko funtsezko modua lortzeko bitarteko handia baita. Lozios (1969) autoreak dioenez, jarduera alferrikakoa eta denbora gutxikoa izan beharrean, baliteke, etapa goiztiar eta erabakigarri jakin batzuetan, jolasa beharrezkoa izatea ondorengo jarduera sozial ororen agerpenerako eta arrakastarako.

Bestetik, gorputza zer den galdetzen diogunean gure buruari, askotan erantzunik gabe geratzen gara. Gorputzak mugitzeko, adierazteko eta era guztietako esperientziak bizitzeko aukera ematen digu, komunikatzeko eta bizitza honek eskaini behar digunaz gozatzeko aukera emateaz gain. Jakina da gorputza izaki bizidun guztiok daukagula eta biologikoki funtzio batzuk betetzen dituela, nutrizioa, zirkulazioa, arnasketa, iraitzea, ugalketa... Baina gorputza eta bere adierazpena askoz haratago doa; izan ere, gorputzak esparru guztietan bere garrantzia du eta eskolan ere, batik bat, Haur Hezkuntzan. Gorputz-adierazpena lehen haurtzaroaren arima da; izan ere, haur txikiak haien gorputza ezagutu ahala lortzen dute pixkanaka munduan duten lekua eta inguratzen dituzten gauzak eta pertsonak ulertzea eta baita gure mugimen- eta gizarte-trebetasunak garatzea ere. Azken finean eta Gutiérrezek (2014) adierazten duen bezala, haurraren garapen integrala ulertzeko eta lortzeko, funtsezkoa da bestearekiko eta ingurumenarekiko kontaktuaren gorputz-esperientzia integratzea.

Lan honen egiturari dagokionez, lehenik gaiaren justifikazioa eta ikerketaren inguruko marko teorikoa jasotzen da, gaien garrantzia eta arloaren egoera aztertzeko aditu ezberdinen ikuspegiekin osatuta dagoena. Jarraian, ikerketa kualitatibo bat burutu da metodologia gisa non ikerketa aurrera eramateko erabili diren tresnak, prozedura, testuingurua eta partaideak azaltzen diren. Horretarako, emaitzen atalean, tresna desberdin horien triangulaziotik lortutako informazioa aurkeztu eta kategorizatu da oinarri teorikoen

laguntzaz interpretazioa egitekoa. Azkenik, emaitza horiek literatura zientifikoarekin kontrastatu dira eta ondorio batzuk atera dira eta hobetzeko eta etorkizuneko jarraibideak proposatu dira.

## **2. GAIAREN JUSTIFIKAZIOA**

"Jolas dramatikoak" hitzak ikusi bezain pronto, ez nuen zalantzarik izan horri buruzko gradu amaierako lan bat egingo nuela. Hasteko, azpimarratu nahi dut jolasa dela Haur Hezkuntzaren oinarria, hurrek horri esker ikasten eta garatzen baitituzte beren ezagutzak eta gaitasun kognitiboak. Gainera, beti izan naiz jolaszale amorratua haurra nintzenean, eta orain ere bai, horregatik sakonago aztertu nahi nuen gaia zen, irakasle naizenean umeak hobeto ulertzeko eta haurtzaroko uneak berreskuratzeko.

Bestalde, termino dramatikoak ere konkistatu egiten nau, aukeratu nuen minorra baitzen, hau da, dramatizazioa, eta uste nuen aukera ona zela lan honetan aurtan ikasitako guztia azaltzeko. Horregatik, gaia hautatzearen arrazoia, akademikoa izan da ere; azken batean, aurtengo gradua eta nire gaia eskutik dabilta eta akademikoki dramatizazioaren munduan ezagutza gehiago izango nuke eta errealitate horri buruzko ezagutza garatuagoak izango nituzke.

Hala ere, urtebeteko ikasgelan jolasa eta gorputzaren adierazpenari buruzko azterketa txiki bat egin nuenez, irakaslearekin hitz egin nuen, eta erabaki genuen jolasari eta gorputzari buruzko lehen haurtzaroren azterketa oso bat egitea izango nuela helburu, bigarren haurtzaroa alde batera utzita, hori baitzen nire lehen ideia. Arrazoia sinplea izan zen, tutoreak proposatu egin zidan, eta nik, zalantzarik gabe, ideia bikaina iruditu zitzaidan nire lan guztia Haur Hezkuntzako lehen zikloak merezi duen arretan ardatzea; izan ere, lehen haurtzaroa egitura honen oinarria da etorkizunean izango garen pertsonak bihurtzeko. Gizarteak eta erakundeek ez diote behar duen garrantzia ematen, haurra txikia denez, ez dela ezertaz ohartzen pentsatzen baitute. Baina ez da horrela, eta horregatik erabaki nuen gai honetan zentratzea, hori nabarmentzeko.

### 3. MARKO TEORIKOA

#### 3.1. HAUR HEZKUNTZA

Haur Hezkuntza hasierako etapa holistiko eta unibertsala da, eta pertsonaren garapenerako ekarpen garrantzitsuak egiten ditu lehen urratsetatik (De Castro eta Martínez Bonafé, 2013).

Egile askok uste izan dute aspaldidanik lehen haurtzaroa ikaskuntzarako une garrantzitsutzat hartu behar dela, eta, beraz, lehen zikloko eskola, Espainiako ikasketa-sistemaren arabera, eragin handiko eremutzat hartu behar dela gertakari horretan. (González Falcón y García Coronel, 2013)

Ilido honetatik, Fernandezek eta Feiluk (2017) diote Haur Hezkuntza gure gizartearen oinarria dela eta, pentsalari kritikoak sortu nahi baditugu, etapa hau nabarmendu beharko dugula. Horretarako, haurren interesak kontuan hartu behar dira gauza berriak ikasteko grina piztuz eta, nola ez, sortzeko baliabideak emanez. Honen harira, gainera, jolasa dela haien ikasteko biderik gustukoena eta emozioak baliatzen dituztela azpimarratzen dute.

Beraz, Duranek (2012) gehitzen du, jolasa haien ikasteko bide gustukoena delarik, emozioez baliatuz bide horretan egoten direla txikitatik. Azken batean, bere ustez, ikuspegi psikologikotik, jolasa garapenerako tresna bat da eta baita proposamen didaktikoen diseinua ere. Alvarez Uriak, Garay eta Vizcarrak (2021), era berean, esaten dute garapen sinbolikoa funtsezkoa dela haurtzaroan (0-6 urte); izan ere, etapa horretan, adimen praktikoa sentzore-eragiletik adimen kontzeptualera igarotzen da, eta irudikapen mentaletik gizarte-bizitzaren eskemetara.

Gainera, Delgadok (2011) dio 0 eta 3 urte bitarteko haurren garapena oso konplexua dela. Jarduera mentala sendotzen hasten da, hizkuntzaren erabilera bezala, eta bere buruaren kontzientzia marrazten hasten da; alegia, zentzumen-eremuan daude formekiko eta koloreekiko ikusmen-gaitasuna, entzumen-gaitasunaren garapena, ukimen-aurkikuntza eta horren guztiaren koordinazioa.

Bestalde, Tonuccik (1997) agerian uzten du bere lanetan garrantzitsua dela haurrak espazio fisiko eta sozialaren eraldaketan parte hartzea, eta Haur Hezkuntzaren alde egiten du, ez oinarritzko hezkuntzaren prestakuntza-etapa gisa, baizik eta haurra bera pertsona gisa prestatzeko funtsezko aldi gisa, ikaskuntza-giroa eta hura taxutzen laguntzen duten profesionalen prestakuntza aipatuz. Gainera hauxe dio:

El ambiente, la escuela, la clase deberán concebirse como ambientes culturalmente significativos: los laboratorios, la biblioteca de aula, el rincón de la lectura deberán ayudar al niño a sentirse dentro de un ambiente estimulante. En este ambiente, en lugares y tiempos adecuados, se propondrán aquellas experiencias culturales primarias que hoy la familia no está en condiciones de garantizar y de las cuales la escuela debe hacerse cargo, a partir de la escuela infantil y, sin solución de continuidad, a lo largo de toda la etapa escolar. (3. or.)

## 3.2. LEHEN HAURTZAROAREN GARAPENA (0-3 URTE)

### 3.2.1 Garapenaren ezaugarri orokorrak

Lizasok (2013) adierazten duen bezala, lehen haurtzaroan, izugarritzko aldaketak gertatzen dira. Adibidez, gaitasun motorra eta koordinazioa, gaitasun sentsorialak eta hizkuntza garatzen dira. Aro horretan, haurrengan familiako kideekiko atxikimendua sortzen da, eta konfiantza edo mesfidantza izaten eta maitasuna adierazten edo erreprimitzen ikasten dute. Gainera, beren oinarritzko sentimendu eta emozioak adierazteko ahalmena eskuratzen dute, eta nolabaiteko independentzia eta niari buruzko ezagutza sortzen dituzte. Garai horretan, jada, haurrek nortasunarekin eta izaerarekin lotura duten ezberdintasun nabariak adierazten dituzte.

Ilido honetatik, jarraian lehen haurtzaroaren garapen fisikoa eta motorra, jolasaren garapena, Piageten Estadioak (zentzumenei eta mugimenduei dagokiena) eta hizkuntzaren garapena eta garapen kognitiboa adieraziko dira.

### 3.2.2 Garapen fisikoa eta motorra

Tannerrek (1990, Lizasok aipatua, 2013) dioten bezala, trebetasun orokorreki dagokienez, 1-2 urterekin haurrek mugimendu sendoetan oinarritutako aktibitateez gozatzen dute. Aldi berean, gorputz-jarreraren kontrolean aurrerapausoak ematen ditu. Bestetik, bira egiten dute, goratzen dira, bi hankaren gainean salto egiteko eta eskailerak igo eta jaisteko (bi hanka eskailera maila bakoitzean ) gaitasuna dute. 2-3 urterekin, progresioak ere askotarikoak dira: abiadura moteldu eta azkartzeko erraztasuna dute, birak itxiagoak dira eta bat-batean geldi daitezke, eskailerak laguntzarik gabe igotzen dituzte, salto egiten dute bi hankak elkarrekin, hanka baten gainean ibiltzeko kapazak dira.

Objektuak manipulatzeko trebetasunaren garapenari begira, 1-2 urterekin kapazak dira edalontzitik edateko, koilara erabiltzeko, kremailera ixteko, janzten eta arropa kentzeko laguntzarekin, zirriborroak egiteko, liburuen orriak banan banan pasatzeko, kuboekin dorreak egiteko (gutxirekin) eta abar. 2-3 urterekin, berriz, sardexka modu eraginkorrean erabiltzen hasten da, pitxerretik ura zerbitzatzeko, zapatako lokarrien korapiloak askatzeko

gai da, jantzi eta erantzten da (baina botoiak lotu gabe), 9 edo 10 kuboko dorreak egiten ditu eta luzeran eta zabaleran paper zati bat tolesten daki (Tanner 1990, Lizasok aipatua, 2013).

### **3.2.3 Jolasaren garapena**

Novillok (2019) dioenez, Pecci, Herrero, Lopez eta Mozosek (2010) idatzitako "Haur jolasa eta metodologia" izeneko liburua aipatuz, haurrak hazi ahala jolasa garatzen da. Lehenengoa joko presinbolikoa izango litzateke (12-17 hilabete). Bertan, haurra eguneroko bizitzako objektuen erabilera funtzionala identifikatzen hasten da, eta objektu horiekin lotutako ekintzak edo keinuak egiten ditu, erabiltzen diren benetako testuingurutik kanpo. Adibidez: edalontzi huts batetik edan, kuxin batean etzan. Jarraian, bere gorputzari buruzko ekintza sinbolikoak aurkituko ditugu (16-18/19 hilabete). Hemen, haurrak aurreko ekintza sinboliko berberak egiten ditu, bere gorputzean zentratuta, baina gehiegikeriaz. Ondoren jolas sinbolikoa etorriko zen (18-19 hilabetetik aurrera). Jolas sinbolikoa oso modu sinplean hasten da eta orain haurrak eguneroko bizitzako eszenetara hurbiltzen dira. Ekintza ezagun horiek agente pasibo bati aplikatzen dizkio (objektuak edo beste pertsona bat). Azkenik, etapa honetan aktoreen eta jostailuen konbinazioa (20-22 hilabetetik aurrera) aurkituko genuke. Haurrak pertsona edo objektu bati baino gehiagori buruzko jarduera simulatuak egiten ditu; adibidez, amari jaten ematen dio, gero panpinari. Baita ere hasten dira bi jostailu konbinatzen jolas simulatu batean. Adibidez: koilara lapikoan jartzen du.

### **3.2.4 Piageten estadioa (zentzumenei eta mugimenduei dagokiena)**

Lizasoren aburuz (2013), zentzumenei eta mugimenduei dagokien estadioan, umeek zentzumen estimuluak gaitasun motorrekin koordinatzen dituzte, eta, horri esker, portaerazko eskemak sortzen dituzte, hau da, ingurunearen gainean "operatu" edo ekin egiten dute, hura ezagutzera iristeko. Bi urteko umeak erreflexuek mugatutako eta ezaguera apaleko izakiak izatetik arazoak ebazteko gaitasuna izatera pasatzen dira; adibidez, beren eguneroko gertaerei buruz. Ezagutza bidezko garapena hain da garrantzitsua, Piagetek zentzumenei eta mugimenduei dagokien estadioa sei azpiestadiotan banatu baitzuen, erreflexuak ezaugarri dituen izaki batetik gogoeta egiten duen izaki baterako trantsizioa deskribatzeko asmoz.



<b>Lehen estadioaren azpietapak</b>	<b>Arazoak sinbolikoki konpontzeko edo emaitza interesgarriak lortzeko metodoa</b>	<b>Imitazioa</b>	<b>Objektuaren iraupena kontzeptua</b>
1-Ariketa erreflexua (0-1 hilabete)	Ariketaren eta berezko erreflexuen egokitzapena.	Imitazio erreflexu pixka bat erantzun motorretan.	Objektu mugikorrari jarraitzen dio, baina desagertzen dela ohartu gabe.
2- Lehen mailako erreakzio zirkularrak (1-4 hilabete)	Umearen gorputzean gertatzen diren ekintza interesgarrien errepikapena.	Erkaketaz imitatzen den jokaera pertsonalaren errepikapena.	Begirada jartzen du objektu bat desagertu zen tokian.
3- Bigarren mailako erreakzio zirkularrak (4-8 hilabete)	Kanpoko objektuekin lotuta dauden ekintza interesgarrien errepikapena.	Bigarren azpietapan bezala.	Objektu partzialki ezkutuak bilatzen ditu.
4- Bigarren mailako erreakzio zirkularren koordinazioa (8-12 hilabete)	Arazo errazak ebazteko ekintzen konbinazioa (nahitakotasunaren lehen ziurtasuna).	Erantzun berrien mailako imitazioa; atzerapen laburraren ondorengo ekintza motor oso simple baten imitazio atzeratua.	Objektuaren iraupena kontzeptu hasiberria; bilatzen ditu, eta nabarmen mugitu ez diren objektu ezkutuak aurkitzen ditu.
5- Hirugarren mailako erreakzio zirkularrak (12-18 hilabete)	Arazoak ebazteko edo emaitza interesgarriak erreproduzitzeko forma berriak aurkitzeko esperimendazioa.	Erantzun berrien imitazio sistemikoa; atzerapen luzearen ondorengo ekintza motor oso simple baten imitazio atzeratua.	Ikusten diren moduan nabarmen mugitu diren objektuak bilatzen ditu, eta antzematen ditu.
6- Arazoak sinbolikoki konpontzeari esker baliabideak asmatzea (18-24 hilabete)	Insight-aren lehen ziurtasuna, umeak arazoak barneko maila sinbolikoan ebaztean.	Jokaera baten segida konplexuaren imitazio atzeratua	Objektuaren iraupena kontzeptua osoa dago; ikusteko moduan tokiz aldatu diren objektu ezkutuak bilatzen eta aurkitzen ditu.

1. Taula. Shaffer eta Kippetik (2007, 247. or.) hartua eta egileak euskaratua: Zentzumenei eta mugimenduei dagokien estadioaren laburpena.

### **3.2.5 Hizkuntzaren garapena eta garapen kognitiboa**

Lehen haurtzaroa, ezinbestekoa eta erabakigarria da gizakiak bere existentzian zehar jasaten duen garapen indibidual, pertsonal, eragile, ezagutzazko eta sozialerako (Meza, 2000).

Dorr, Gorostegua eta Bascoñanek (2008) planteatutakoaren arabera, etapa horretan, haurra arazoak pentsatzeko eta konpontzeko moduan aldaketak izaten hasten da, hizkuntzaren erabilera eta modu sinbolikoan pentsatzeko trebetasuna pixkanaka garatuz. Zehazki, hizkuntzaren agerpena haurra arrazoitzen hasi den zantzu bat da, muga batzuekin bada ere. Horrela, haurtzaro goiztiarreko garapen kognitiboa askea eta irudimentsua dela esan daiteke, baina bere etengabeko erabileraren bidez munduaren ulermen mentala gero eta gehiago hobetzen da (Berger, 2007).

Palauk (2005, Campok aipatua, 2009) adierazten du haurrak bi urte dituenean barruko eta kanpoko pertzepzioen ondoriozko elementuak eta faktoreak antolatzen, egituratzen eta integratzen dituela, gorputzaren osotasunaren pertzepziora iritsi arte, eta bost urterekin benetako gorputz-eskema bat eraikitzea lortzen duela. Prozesu horren hasieran, hizkuntza hitzez adieraztea eta barneratzea da haurrari bere gorputz-eskema osatzen duten faktore guztiak integratzeko eta jokabide motorra zuzentzen duen pentsamendua kontrolatzeko aukera emango dion tresna. Horrela, mugimendua aurreikusteko eta hausnartzeko gaitasuna sortuko da.

Delgadok (2011), aldi berean, dio 0 eta 3 urte bitarteko haurren garapena oso konplexua dela. Jarduera mentala sendotzen hasten da, hizkuntzaren erabilera bezala, eta bere buruaren kontzientzia marrazten hasten da; alegia, zentzumen-eremuan daude formekiko eta koloreekiko ikusmen-gaitasuna, entzumen-gaitasunaren garapena, ukimen-aurkikuntza eta horren guztiaren koordinazioa.

<b>Garapenaren etapa</b>	<b>Garapenaren izaera</b>	<b>Adierazpenen adibideak</b>
1. Mintzamenaren aurrekoa (lehen urtea baino lehen)	Negar egitea, txorrotzio egitea, berriketan aritzea.	“Uaahh”, “dadadada”
2. Hitz bakarreko esaldia (holofrasea; 12 hilabeteak aldera)	Hitza ahozkoak ez diren mekanismoekin konbinatzen da (keinuak eta inflexioak).	“Ama” (“Ama, segundo bat etorriko zinateke?” esan nahi duela)
3. Bi hitzeko perpausak (12 hilabeteak aldera)	Hitz nagusiaren amaiera aldatzen da, eta, ondorioz, esanahi desberdina duten esaldiak sortzen dira: aginduzkoak, galderazkoak, eta abar	“Haurtxoa polita” (adierazlea) “Non aitatxo” (galderazkoa) “Ez jolastu” (negatiboa) “Esne gehiago” (aginduzkoa)
4. Hainbat hitzeko perpausak (bi edo bi urte eta erdiak aldera)	Perpasek subjektua eta predikatua izaten dituzte. Morfema gramatikalek esanahia aldatzeko balio dute	“Haurtxoa zer ondo dagoen” (adierazlea) “Non aita dago?” (galderazkoa) “Jokatu ez nahi dut” (negatiboa) “Esne gehiago eman” (aginduzkoa) “Ni parte hartuta” “Nik esan”

2. Taula. Lefrancoisetik (2000, 150. or.) hartua eta egileak euskaratua: Haurraren gramatikaren garapenaren etapak

### 3.3. JOLASA

Garaigorabilen (1990) ustez, jolasa haurtzaroko jarduera nagusia da, eta bizi-premia; izan ere, berak dio haur batek jolasten ez badu zerbait gaizki dabilen delako. Horri dagokionez, Garcíak eta Llulek (2009) adierazi dute arraza eta herrialde guztietako haurrak hazi egiten direla eta jolasean hezten direla. Helduek eta hurrek jolasten dute jolasa kulturaren parte delako, baina esan genezake haurren funtsezko ezaugarri bat dela jolastuz bizi eta ikasten dutelako.

Arnaizek (1991) azaltzen duenez, jolasaren ardatza mugimen-jarduera batzuk dira. Jarduera horien bidez, haurrak inguratzen duen mundua adierazi, komunikatu, antzeman eta konfiguratu dezake, hark objektuekin, espazioarekin, beste hurrekin eta helduekin ezartzen duen harremanaren bidez.

Bestalde, jolasa serioa da eta haurraren garapenerako baliagarria da, haurra bere jolasean protagonista den heinean, kanpoko errealitatearen eskakizun eta mugetatik berezita mantentzen baita. Hezitzailea arduratuko da giroak sortzeaz, ikasgelako espazio fisiko eta soziala ingurune aberats eta estimuluen bideratzaile bihurtzeaz, ikaskuntzak

erraztuko dituen eta adinekoen mundua beraiek egon gabe esploratzea ahalbidetuko duena. Espazioa, beraz, berdinen taldearekin elkarreragiteko eremu pribilegiatua da, eta hurrek Haur Hezkuntzan dituzten autonomia, ekimen, jakin-min eta aurkikuntzaren beharrak betetzen ditu (Zabalza, 2008).

Ruiz De Velascok eta Abadek (2011) nabarmentzen dute jolasa adimena erabiltzeko modu bat dela, edo, hobeto esanda, burua erabiltzeko moduari buruzko jarrera bat. Jolasa gauzak probatzeko esparru bat da, pentsamendua, hizkuntza eta fantasia uztartzeko «negutegi» bat. Jokalariak berak kontrolatzen duen jokoak pentsatzeko, hitz egiteko eta bera izateko lehen aukera eta garrantzitsuena ematen dio. Adimena, hizkuntza-gaitasuna, ezagutza, afektibitatea eta gizarte-garapena joko-modu horrek integratzen eta indartzen ditu. Horregatik, jolasa ikaskuntza bultzatzeko modutzat hartzen da.

Jolasaren garrantzia aztertuta hezkuntzan eta haurren garapenerako, zilegi da historian atzera egitea eta begirada historikoan jartzea fokua, Vygotski, Wallon, Erikson, Chateau eta Elkoninen hitzak berreskuratuz.

Vygotskyren arabera adibidez (1979), haurren jolasa adin-maila batetik bestera doan edozein aldaketa edo igarotzerekin lotuta dago, argi eta garbi, jokatzeraz bultzatzen dituzten motibazio eta estimuluen bat-bateko aldaketarekin lotzen ari baita. Jolasa ez da haurren ezaugarri nagusia, garapenaren oinarritzko faktorea baizik.

Haurra jolas *autokosmiko*a-ren bidez bera bakarrik hasten da sententzioak izaten (norberaren gorputzarekin jolasten da), eta sententzio horiek bere bizitza intelektual eta psikiko osoaren hasiera dira (Wallon, 1979). Haurra esploratzen eta sentitzen ari denean, berehala sartzen da gizarte-munduan, non jolasak ekarpen handia egiten duen bere aukeren horizontea zabaltzeko aukera ematen baitio, bere beharrak asetzeko modu ugari eskaintzen baititu.

Eriksonen (1974) beste urrats bat eman zuen, eta jolasa niaren funtzioa dela adierazi zuen, gorputz- eta gizarte-prozesuak bere buruarekin sinkronizatzeko ahalegina. Hau da, esperimenduaren eta pentsamenduaren bidez errealitatea menderatzeko giza gaitasunaren haur-forma da.

Bestalde, jolasa errealitatearen adierazpena eta irudikapena da. Jolasak sozializatorako eta, beraz, bizitzarako prestatzen du, eta gizarte-garapena ere laguntzen du; izan ere, garrantzi handia ematen die elkarreraginei eta besteekiko harremanei, helduaroak beharko dituen autonomia, nortasuna eta eskema praktikokoak bereganatzen baititu haurrak (Chateau, 1987).

Elkonin (1985) ados dago Chatearekin, adierazten du jolasa pertsonaren gizarte-harremanetan zentratzen den jarduera bat dela, inguratzen duenarekin, eta horrek ikaskuntza praktikoak eta adierazgarriak sortzen dituela, ezagutza osatzen duten trebetasun jakin batzuk sortuz. Elkoninek dio, halaber, jolasean, lehen haurtzaroko haurrak egozentrismo kognozibotik deszentrorra igarotzen direla; horrela, bada, jolasa hezkuntza-baliabide gisa hartzen da, haur-hezkuntzako modu espontaneo batean bihurtzen delarik.

### **3.4.1 Jolas heuristikoa**

Urtebetetik bi urtera bitarteko haurretan aipamen berezia merezi du jolas heuristikoa, hau da, gauzak beren kabuz deskubritzen irakasteak, esplorazioa eta aurkikuntza autonomia ahalbidetzen baititu (Casanova, Fernández, Pérez, Serrano, Durán eta Cañas, 2010).

Jolas heuristikoa, altxorren saskia bezala, Goldschmiedek (2000) asmatutako jolas-proposamena da. Egile ingeles honek jolas heuristikoa ikaskuntza-ikuspegi gisa definitzen du, ez 0-2 urteko haurrek manipulazioaren bidez esperimintatzeko errezeta gisa. Horregatik, esplorazio- eta aurkikuntza-jolasa ere deitzen zaio, helburua haurra objektuen manipulaziora, behaketara eta miaketara bultzatzea baita, kontzentrazio-, arreta- eta motrizitate-gaitasuna garatzeko (Parra, 2011).

Elorzak (2011) espazio eta denbora bat definitzen du, hezitzaileak haurrei lurrean material zehatzak eskaintzeko. Aplikatzeko aukera handienak hemezortzi hilabetetik aurrera da, baina lehenago has daiteke, haurraren heltze-mailaren arabera, eta bi urtera arte iraun dezake, une horretan hasten baita jolas sinbolikoa.

Sanzen arabera (2003), jolas heuristikoa hamabi eta hogeita bi hilabete bitarteko haur talde batek jarduera didaktiko gisa katalogatu gabeko objektuak esploratu eta askatasunez konbinatzen dituen jarduera da. Gaitasun fisikoak, mentalak, emozionalak eta sozialak landu eta aberasten dituen jarduera da. Izan ere, gorputz osoaren mugikortasunaren nagusitasuna bizitzako bigarren urteko konkista handia da. Haurrak martxa egin nahi duenez, mugitu eta lekualdatu egin beharko du ia etengabe. Jakin-mina handitzen jarraitzen du, eta, aldi berean, begiak eta eskuak koordinatzeko eta objektuak manipulatzeko aukerak hobetzen ditu.

Ildo honetatik, ez dago hori egiteko modu egokirik, hezitzaile bakoitzak material desberdinak biltzen ditu haurren adinaren arabera. Egia esan, sistema honen meritu

handienetako bat da helduen sormena askatzen duela eta haurrak zaintzeko lana bizigarriagoa izatea eragiten duela (Goldschmied eta Jackson, 2000).

Requena eta Jiménez arabera (2003), jolas heuristikoak aukera ematen die haurrei gehien interesatzen zaizkien materialak aukeratzeko eta haiekin nahi dituzten ekintzak eta harremanak egiteko, aukerak amaigabeak baitira. Haur batek egiten dituen ekintza eta harreman guztiak beste haur batek egiten dituenak bezain zuzenak edo egokiak izango dira. Autore horiek, gainera nabarmendu dutenez, jolas heuristikoak honako alderdi hauek garatzen ditu haurraren:

- Materialen eskaintzaren artean askatasunez aukeratzeko gaitasuna.
- Irudimena, arreta, memoria, sormena eta prozesu kognitiboak bultzatzen ditu.
- Objektuen pilatzea, ezberdintasunak eta antzekotasunak ahalbidetzen ditu.
- Esperientzia sensorialak eskaintzen ditu. Adibidez: kolorea, tamaina, testura.
- Jolasa amaitzean biltzeko ohitura hartzea.

### **3.4.2 Jolas sinbolikoa**

Jolas sinbolikoak kontzeptuurreko etaparen (2-4 urte) bereizgarriak dira. Objektu bat beste baten bidez irudikatzea eskatzen dute. Ildo honetan, Vázquezek (2011) hurrengoa baieztatzen du:

El lenguaje, que también se inicia a esta edad, ayudará poderosamente a esta nueva capacidad de representación. Otro cambio importante que aparece en este momento es la posibilidad de los juegos de ficción: los objetos se transforman para simbolizar otros que no están presentes, así, un cubo de madera se convierte en un camión, una muñeca representa una niña o una cuchara en un avión. (36. or.)

Ruiz De Velasco eta Abaden arabera (2011), jolas sinbolikoa, gainera, esploratu ahal izateko bitarteko bikaina da. Berez, esploratzeko arrazoi bat da. Oro har, bizitza, bertan gertatzen dena eta haurrari gizaki gisa eragiten diona aztertzen da, hau da, helduen portaera, ikasi behar dituen edo atentzioa ematen dioten eguneroko edo ezohiko egoerak, eta abar. Jolasa birsortzearen bidez, ulertzen eta barneratzen erraza ez den baina ezagutzea ezinbestekoa den mundu batetik hartutako jarrerak, ereduak eta portaerak erreproduzitzen eta interpretatzen ditu haurrak. Bizitzako lehen urteetan askatasunez mugitzeko aukerak mundu fisikoa ulertzea eta menderatzea errazten dion bezala, sinboloekin jokatzeko errealitatea atzematea, interpretatzea eta bereganatzea ahalbidetuko dio.

El juego simbólico lo trajeron los niños a la escuela y algunas maestras lo dejaron entrar, y no debería considerarse como algo que puede realizarse en el recreo o en el aula si sobra tiempo después de realizar el trabajo «importante», sino como una

forma de aprender y practicar, en el caso del juego simbólico, la realidad de la vida. (Vicencç Arnaiz 1991, Ruiz De Velascok eta Abadek aipatua, 2011, 31. or.)

Novilloren arabera (2019), jolas sinbolikoa bitarteko eraginkorra da hizkuntzaren bilakaerarako eta hizkuntza-gaitasuna zabaltzeko, egitura sintaktikoei, hiztegiari, adierazpen berriei eta abarri dagokienez. Afektibitatearen ikuspegitik, gainera, jolas sinbolikoa oreka psikikoa lortzeko modu bat da bizitzako lehen urteetan. Garrantzitsua da haurraren garapen afektiborako; izan ere, jolasaren bidez, haurraren beldur, emozio, gatazka eta abar guztiak adierazten ditu. Beraz, egile honek hauxe adierazten du jolas sinbolikoaren onuren inguruan: “Favorece la imaginación y la creatividad, nos ayuda a comprender y asimilar el entorno que nos rodea, con él, aprendemos los conocimientos sobre los roles de la sociedad adulta y desarrollamos el lenguaje mediante su práctica” (Novillo 2019, 129. or.).

Prietok eta Medinak (2005), Piageten teoria kontuan hartuz, aipatzen dute jolas sinbolikoa elkarreragiteko eta ingurunera egokitzeko modu espontaneo eta naturala dela. Jolas sinbolikoa da haurrak bere mundua irudikatzeko duen lehen modua, eta hortik aurrera bere eskema mentalak garatu pentsamendu adimendunera iritsi arte. Beraz, jolas sinbolikoan zehar, elkarren segidako gatazka kognitiboak gertatzen dira, pentsamendu-eskemak deskonposatzea eta egitura konplexuagoak berrosatzea ahalbidetzen dutenak.

Autore hauek, alegia, Prietok eta Medinak (2005), oraingoan Vygotskiren ikuspegia jarraituz, diote jolasa garapen-faktoretzat hartzen dela; izan ere, garapen potentzialeko eremu bat sortzen du, eta hortik aurrera haurrak bere benetako adinetik gora jardun dezake. Era berean, jolas sinbolikoak pentsamendu abstraktuaren eta funtzio psikologiko gorenen garapena bultzatzen du, eta sormenaren eta irudimenaren abiapuntua da. Jolas sinbolikoak funtzio sozializatzailea betetzen du, errealitate soziokulturalaren isla baita; beraz, haurra gai da rola ikasteko, besteekin komunikatzeko eta talde horretan parte hartzeko, jolasean agertzen diren ereduaren imitaziotik abiatuta.

Brunerrek (1984) aurreko ideiarekin ados dago eta dio jolasa ikaskuntzarekin lotzen dela, haurrari sinboloaren erabilera deskubritzen uzten baitio. Jolas sinbolikoaren bidez, haurrak bere arazo asko konpontzen ditu eta bere nahiak fantasiaren mailan eratzten ditu. Gainera, haurrei gizartearen arauak eta elkarriketei buruz ikasteko aukera ematen die. Azken batean, jolas sinbolikoak kulturarako prestatzen du haurra.

### **3.4.3 Jolasak duen garrantzia Haur Hezkuntzan**

Jolasak baliagarriak dira gorputz-indarra eta indar mentala sendotzeko gaitasunak garatzeko. Lorpen horietako asko lehen aldiz agertzen dira jolasan. Beraz, badirudi

justifikatuta dagoela pentsatzea jolas-jarduerak giza funtzio asko abian jartzeko balio duela. Aurrekoak berresten du jolasa eta praktika ludikoak direla gizakiaren garapenerako eta prestakuntzarako tresnarik onenak, ez bakarrik dimentsio kognitibotik eta gorputzetik, baita sozialetik ere; izan ere, haurren jolasa, besteak beste, prestaketa-ariketa bat litzateke, rol sozialetan hartzen direlako. Bestalde, adibidez, haurren jolasak esku har dezake ezinbesteko ezagutza jakin batzuk eskuratzeako, errepresioa eta errepikatzea errazteko, baina, aldi berean, autohezkuntza eta indibidualizazioa errazteko (Russell, 1985).

Decrolyk (2002), ordea, argitu du haur-jolasaren kontzeptua ez dela mugatzen forma jakinetan garatzen den jolasera, baizik eta jolas-jardueraren forma guztiak hartzen dituela. Russell-en arabera (1970), horrek esan nahi du haurtzaroko dimentsio guztien garapen harmoniko eta integralari laguntzen diola, hainbat agertokiren testuinguruan, besteak beste, hezkuntza-eszenatokiaren testuinguruan. Eskola-etapa honetan, haurrak jolas hezitzaile askotan parte hartzen du. Jolas horien helburua da zenbait funtzio mental garatzen laguntzen duten esperientziak eskaintzea haurrari, baita ezagutza jakin batzuk ikasten hastea ere, eta, era berean, arreta-, atxikipen- eta ulermen-gaitasunarekin lotutako errepikapenak egitea ahalbidetzen du. Horregatik, jarduera pedagogikoen plangintzak, kasu askotan, pertzepzioak eta pentsamendua suspertzea helburu duten hezkuntza-helburuak dituzten jolasak biltzen ditu (Decroly, 2002).

Eriksonen (1974) dio gutxi gorabehera eskolaurreko adinean jolasak garrantzi handiagoa hartzen duela. Lehen haurtzaroan jolasa makro esferara iristen da, besteekin partekatutako mundura. Parte-hartzaileen artean ez dago benetako loturarik, eta haien arteko harremanaren ezaugarri nagusia garatutako jolasaren barruko helburuen ondorioa da. Hala ere, gero dinamika horrek guztiak zentzua hartzen du, eta interakzioak garapen kognitiboari eta sozialari laguntzen dioten agertoki gisa hartzen dira.

Ruiz De Velasco eta Abaden (2019) ustez, lehen haurtzaroan, jolasaren lehen funtzioa kultura sinboliko batean sartzeko aukera ematea da, eta haurren iruditeria adierazten laguntzea, haurrek ipuinetako narrazioetan eta beren ekintzen bidez iradokitzen dituztenetan entzuten dituzten kontakizunetaz elikatzeko. Horrela, bizitzako lehen urteetatik jolasa funtsezkoa da psikismoa garatzeko, afektuaren eta hizkuntzaren bidez familiaren eta eskolaren inguruneak transmititzen duen gizakiaren dimentsio sozioemozionala eta kulturala bertan biltzen baita.

Bestalde, Cañasek (2009) aipatzen du, lehen urteetako jolasa adierazpenaren garapenari laguntzen diola eta horregatik jolas hori funtsezkoa dela eta ez dela bakarrik



ekintza sortzaile batean bilakatu behar, baizik eta entzute eta harmen prozesu batean bilakatu behar dela zeinetan besteak onartzen dituzten.

Haurtzaroko jolasteko moduari erreparatuz Dinizek eta Correira da Silvak (2018) adierazten dute, saiakera-errorea, imitazioa eta irudimenaren garrantzia oso esanguratsuak direla; azken finean, jolasak errealitatearen alderdiak gogora ekartzen dituzten irudiak eta egoerak irudikatzea eta adieraztea sustatzen du eta urtebeterekin adibidez, objektu bati erabilera bakarria ematen diote; hau da, bere erabilera praktikoa imitatzen dute eta pixkanaka errealitatearen objektua bereizten joaten dira, sinbolismora joz.

Gaur egun, jolasa funtzio desberdinak eta burmuinaren egitura hobetzen duela eta ikaskuntza-prozesua sustatzen duela frogatuta dago. Beraz, espazio eta denbora nahikoak eskaini behar dira hau bultzatzeko. Izan ere, haurren artean jolasak duen garrantzia hain da handia, 1959az geroztik Nazio Batuen Erakundeak (NBE) Haurren Eskubideen artean sartzen dela, eta 1989ko Adierazpenean ere mantentzen dela (Martinez, 2018).

Sterneki (2017) azpimarratzen duen bezala, haurra jolasten duenean mundua ondo doala hautematen du. Hala nola, edozein leku eta momentutan jolasteko nahia gauza serioa eta betea dela sentitzen du. Hau da, haien lehentasuna da eta eskura duten jolasteko edozein aukera aprobetxatzen dute edozein baldintzatan ere. Beraz, Haur Hezkuntzan espazioak eta momentuak uztea funtsezkoa da. Halaber, haien garapenerako eta irakaskuntzarako elementu garrantzitsua delako. Díez Navarrok azaltzen zuen moduan (2013), jolastea oso gauza serioa da haur txiki batentzat, jolasa beharrezkoa eta bizia delako, osasunaren seinale delako eta plazera eta errealitatea lotzen duelako.

Honen ondorioz, Haur Hezkuntzan, jolasa, ekintza eta esperimentazioa ikaskuntzaren ardatz nagusia bezala kontuan hartu behar dira. Izan ere, horri esker, haurrak hainbat alderdi behatu, arakatu, mugitu, bilatu eta probatu ahal izango dituelako (Kállo eta Balog, 2013).

#### **3.4.4 Jolasa eta gorputz adierazpena**

Bizitzako lehen hilabeteetan, jolasa haurtzaroko egunerokotasunean agertzen da, haurra bere gorputzean zentratzen hasten denean. Jolas autokosmiko honen helburua pertzepzio sensorialak, bokalizazioak eta abar errepikatuz esploratzea da (Wallon, 1987). Hasiera batean, haurrak jolasean egiten dituen elkarrekintzak bere gorputzaren autoezagutzan oinarritzen dira, ondoren objektuekin eta beste pertsona batzuekin harremanak izateko aukera ematen diena.

Vizcarrak (2014) adierazten du haurrek txikitatik jokatzen dutenean beren mundua eta beren burua eraikitzen dutela eta jokatze horrek sorkuntza dramatiko eta emozionalaren isla dela. Ildo honetan, bere lanean aipatzen zuen “gorputz adierazpena; gorputza erabiltzea, barneratzea, bilatzea eta onartzea da. Gorputza erabiliz; emozioak, ideiak, pentsamenduak, sentipenak, sentimenduak eta bizipenak adierazten dira, betiere, sormena aurretik jarrita” (Vizcarra, 2014, 246. or.). Ideia hau indartzeko, curriculumak zera dio: “Etapan honetan, haurrek inguratzen duen mundua deskubritzeko duten jakin-mina, zentzumen-manipulazioaren bidez esploratzen du, tresna ezin hobea da beren ingurune hurbileneko materialen eta objektuen ezaugarriak identifikatzeko eta haien artean erlazioak ezartzeko” (237/2015 Dekretua, 2015ko abenduaren 22ko Kontseilukoa).

Carrilloren arabera (2020) haurrak gorputz osoarekin jolasten du eta, gorputz-jolas honen bidez, manipulazioen, eraikuntzen, joan-etorrien eta abarren bidez, kanpoko munduko objektuekin eta bere pertzepzio-ezaugarriekin (tamaina, forma, pisua, ehundura, bolumena, etab.) kontaktuan jartzen da. Gainera adierazten dute txikiek begiratu, ukitu, probatu, jarri, atera, bota, barre egin, imitatu, adierazi, errepikatu... Eta bestelako ekintza asko egiten dituztela, ezaugarri fisiko, kimiko eta sozial desberdinak aurkitzen laguntzen dietenak.

Gállargok (2003) aipatzen du gorputzaren pixkanakako kontrola eta jolasa haurra jaiotzen denetik eta Haur Hezkuntzako etapa osoan hartzen duen eraikuntza geldoa baina hauskorra dela; izan ere, edozein jarduerak, konpondu nahi den edozein lanak, osagai motorrak eta gorputz-lanak garrantzi handia dute. Horregatik, beste komunikazio-aukera batzuk agertzen direnean gorputz-hizkuntza ez uztearen garrantzia defendatzen du.

Lacarcelek (2011) Gallargok aipatu zuena garatu egin zuen; izan ere, honek zioen ahozko hizkuntzaz jabetzeko adinean daudenean gorputz-hizkuntza gutxitzen joateko arriskua dagoela, eta, beraz, gorputzaren bidez hizkuntza erabiltzea ahalbidetzen duten egoerak indartu behar direla. Honen harira, baieztatzen du gorputz-adierazpena dela erabiltzen dugun lehen adierazpen-bidea, eta, ikasi ahala ahozko hizkuntza erabiliena bihurtzen ari den arren, gorputz-hizkuntzak oraindik ere presente jarraitzen duela, ahozko hizkuntzak berak baino informazio gehiago eta egiazkoagoa ematen baitigu.

Hemendik jarraituz, edozein jolas mota aurrera eramateko, gorputzaren inplikazioa beharrezkoa izango da. Esaterako, gorputza beraren ezagutza haurrak bere mugimenduen bidez ingurunearekin duen harremanean emandako lehen aurkikuntzetatik egiten da (Piccolo eta Moreira, 2015). Haur Hezkuntzako etapan (0-6 urte), keinuen eta mugimenduaren adierazkortasunaren bidez, haurrek sentimenduak eta sentsazioak

adierazten dituzte, eta, beraz, gorputzaren hizkuntza argia da. Etapa honetan ezinbestekoa da jolasa modu nabarmenean agertzea eguneroko jardueretan; izan ere, ikasleak jolasten ari diren bitartean objektuak manipulatzeko ari dira denbora eta espazio jakin batean, eta beren ekintzak inguratzen dituen munduarekin lotzen ikasten dute (Pons eta Arufe, 2016). Horregatik, material eta baliabideak proposatzea gorputza integratzeko funtsezkoa da.

Esan daiteke gorputz-adierazpenaren edukia beharrezkoa dela haurren garapenerako. Horrek inguratzen dituen ingurunea hobeto ulertzea sustatzen du, ezagutza pertsonala, pertsonen arteko komunikazioa eta kanpoko sentimenduen kanporatzea bermatuz (Abilleira eta Fernández 2017). Ondorioz, material eta baliabide egokiak proposatzea eta eskaintzea azken hau sustatzeko funtsezkoa da. Gainera, gorputzarekin eta mugimenduarekin lan egitea garapen integrala lortzeko funtsezkoa da (Saad eta Prodócimo, 2010). Izan ere, haurren garapen integralerako bi elementu horiek garrantzi handia dutela ulertzen da. Horregatik, eskolan lehenengo etapetan ondo lantzea ezinbestekoa da, horiek eragina baitute etorkizunean gorputzarekin eta mugimenduarekin lotutako trebetasunetan, eta, beraz, haurren garapenaren gainerako arloekin lotutako trebetasunetan (Lení & Wey, 2012).

## 4. HELBURUAK

Helburu orokorra:

- Lehen haurtzaroaren bi ikasgela ezberdinen haurren portaerak eta elkarrekintzak ikertzea jolasetan eta gorputz-adierazpenean oinarrituta eta bildutako informazioaren azterketa bat egitea jolasak eta gorputz-adierazpenak etapa horretan duten garrantzia azpimarratzeko.

*Gaur egun, arreta eskasa jasotzen du lehen haurtzaroak; izan ere, atentzio gehiago bideratzen da bigarren haurtzarora edota nagusiagoetara. Hala ere, lehen haurtzaroa, umearen nortasuna eraikitze eta izango den pertsona osatzeko beharrezkoa den etapa da. Bertan, umea fase askotatik igarotzen da, non pixkanaka garatzen den eta errealitatea ulertzen duen, eta horretarako umea uneoro jolasean dabil eta beste pertsonekin eta materialekin kontaktuan eta elkarrekintzan dabil, gorputz-adierazpenaren bidez.*

Helburu zehatzak:

- Lehen haurtzaroari eta jolasari buruzko oinarri teorikoak identifikatzea eta ulertzea, landu beharreko gaiari buruzko oinarri teoriko sendo bat eraikitzeko.
- Ikerketa kualitatiboan oinarritutako diseinu metodologiko bat eraikitzea, behaketa parte-hartzaile baten bidez umeen inguruko informazioa jasotzeko eta aztertutako testuinguruan eragiten dituzten logikak zehazteko.
- Haurrek adin horietan material eta objektu ezberdinekin dituzten jolasteko era ezberdinak behatzea, gorputz-hizkuntzaren inguruko nondik norakoak ikuskatzea eta besteekiko aurrera eramaten dituzten komunikazioak eta elkarrekintzak identifikatzea, landutako gaiaren informazioa eskuratzeko eta sakon ulertzeko eta adibide errealak ezagutzeko.
- Lortutako emaitza guztiak marko teorikoarekin alderatzea eta indarrean jartzea, ondorio batzuk ateratzeko eta, beraz, eduki teorikoa praktikarekin kontrastatzeko.

## **5. METODOLOGIA**

### **5.1. DISEINUA**

Ikerlan honek metodologia kualitatibo bat erabiltzen du, behaketa- edo ahozko edo idatzizko adierazpen-informazioan oinarrituta egiten baita, ez oso egituratua, jarraibide malguen bidez jaso, nekez kuantifika daitekeena (Gallart, nbbb1992). Diseinua aurrera eramateko, hori zen ikerlan honetarako metodorik egokiena, azken finean, gai zehatz baten inguruan pertsonak eduki ditzaketen esperientziak, bizipenak eta pertzepzioak sakontasunez ezagutzeko aukera ematen du (Juaristi, 2003).

Gainera, behaketa parte-hartzailean oinarritzen da; izan ere, ni naiz taldearen tutorea, informazioa bildu eta gero aztertzen duena. Schensulek, Schensulek eta LeComptek (1999) behaketa parte-hartzaile gisa definitzen dute erakusketaren bidezko ikaskuntza-prozesua bezala eta parte-hartzaileen egunerokotasunean edo errutina-jardueretan parte hartzea ikertzailearen agertokian. Beraz, ikerketa honetan espazioak eta klasera eraman diren materialak antolatu dira, eredu eragile berriak sortzeko eta, modu batera edo bestera, gorputzarekin esperimentatzeko. Haiak izan dira proposamen honetako protagonistak, eta diseinua aurrera eraman duten pertsonen rola izan da egoerak hala eskatzen zuenean haien laguntzea eta emaitza guztiak aztertzeko behaketa sakona

egitea. Eta parte-hartze horri esker, gertatzen diren eta aztertzen ari diren egoeren ulermen holistikoa ahalik eta zehatzen eta objektiboen garatzea bilatu da (DeWalt, 2002).

## 5.2 INFORMAZIOA JASOTZEKO TRESNAK

Saio guztietako informazioa jasotzeko eta, beraz, analisia egiteko lehenik eta behin kontuan izan da parametro psikomotorraren nondik norakoa. Beraz, haurraren unitate funtzionalaren kontzeptuan oinarrituta honako hiru alderdi hauek bertan duten eragina hartu behar dugu kontuan (Wallon, 1979b). Alde batetik, haurra: bere gorputzaren aurkikuntza eta bere "ni"-aren eraketa. Bestetik, haurra objektuen munduaren aurrean: pertzepzioen antolaketa, nozioa eta objektuen arteko harremana. Azkenik, haurra besteen munduaren aurrean: bestearen onarpena, elkarlana, ezagutza eta errespetua. Bertatik, haurra erdigunea izanda, honek izan duen harremana material desberdinekin, espazio guztiekin, bere buruarekin, beste hurrekin eta irakasleekin jaso izan da.

Hortik abiatuta, informazio hori biltzeko, lehenik eta behin egunerokoa erabili izan da. Porlanen arabera (2008), ikasgelako egunkaria oinarritzko tresna profesional erraza da, ekintza modu kontziente eta esplizituan deskribatu, aztertu eta baloratzeko aukera ematen duena, eta, beraz, erabaki oinarrituagoak hartzeko aukera ematen duena. Martínezek (2011) dio, halaber, ohar-koadernoak behatzaileak poltsikoan daraman libreta bat dela eta behatutako guztia idazten duela. Dena esaterakoan, ikerketarako informazio baliotsua osa dezaketen informazio, datu, adierazpen, iritzi, gertaera, krokis eta abarren multzoa sartzen dugu.

Azterlan honetan, ohar-koadernoak narrazio etnografiko batean oinarritu da, eta ikasgela berean erabili da haur bakoitzari buruzko oharak idazteko: gertakariak, harremanak... haur bakoitzari buruzko azterketa sakon bat eginez gorputz-adierazpenaren eta jolasaren baitan.

Elkarrizketa izan da erabili dudana beste teknika osagarri bat ikerlan honetarako, bat-bateko elkarrizketak, hain zuzen ere. Juaristiren ustez (2003), teknika honen helburua zera litzateke: "(...) elkarrizketatuarentzat garrantzitsua eta adierazgarria dena ezagutu (...). Elkarrizketa oinarritzat hartuz, elkarrizketatuak bere mundua, bizitza zein ondo ezagutzen duen arlo edo gai bat nola ikusten, sailkatzen eta bizi duen ezagutu daiteke" (139 orr.). Teknika honen erabilpena informazioa osatzeko erabili da; alegia, oharren zehaztasun maila handitzeko. Horregatik, bat-bateko elkarrizketa hauek ikasgelako tutoreei egin zaizkie saioak egiten ziren bitartean, zalantzak argitzeko, haurrak hobeto ulertzeko eta haien errealitateetara gehiago hurbiltzeko, haienganako informazio sakonagoa izan dezadan.

## 5.3 INFORMAZIOAREN ANALISIA

Informazioa aztertzeko prozesua egindako behaketaren esanahia interpretatzetik dator, behaketa jasotako informazioaren analisia eginda eta irakasleekin izandako elkarrizketen bidez. Ildo honetatik, jasotako informazio guztia marko teorikoarekin alderatu da eta haurren jolasak eta gorputzaren adierazpenak identifikatu eta aztertu dira.

Ildo honetatik, erabilitako tresnetatik zetorren informazioa garatzeko eta biribiltzeko, kategoria-sistema bat erabili da analisi-tresna gisa. Kategoria-sistema hau narrazio-etnografikoetatik atera da, gehien errepikatzen ziren kontzeptuak barne hartuz irizpidea jarraituz. Beraz, dimentsioen eta kategorien antolaketa hierarkizatua egin da, eta maila guztietako gaiak elkarri lotuta daude.

<b>DIMENTSIOAK</b>	<b>KATEGORIAK</b>
Materialak	Oihalak/Arropa Objektuak Musika tresnak
Mugimenduak	Estatikoa Katamarka Ibilera
Harremanak/Elkarrekintzak	Inongo harremanik Elkarrekintzak haurren artean Komunikazioa haurren artean Helduekiko harremanak/elkarrekintzak Helduekiko komunikazioa

3. Taula. Kategoria sistemaren azterketa

Gainera, informazio hori biltzeko, saioetako diseinatzaileen narrazio etnografikoak (N.E.) erabili ziren eta, analisia egiterakoan, hauek erreferentziatzeko hurrengo kodigoa erabili zen: N.E.1-10 UUUU/HH/EE<sup>1</sup>.

## 5.4 TESTUINGURUA, PROZEDURA ETA PARTAIDEAK

Esperientzia hau aurrera eraman izan da bi ikastetxe desberdinetan, Izarra Haur Eskolan eta San Ignacio ikastetxean. Lehenengoari begira, Gasteizen dago, hiru auzo artean kokatuta, Santa Lucia, Judimendi eta Salburua. Publikoa da eta Haur Hezkuntzako

<sup>1</sup> U: URTEA / H: HILABETEA / E: EGUNA

lehenengoko ziklorako zerbitzua sustatzen dute; alegia, 0-2 urte tartekoa. Inguruneak eta familien ezaugarri sozioekonomikoak, Haur Eskolan eragina du; azken batean, errealitate hau guztia kontuan izaten da Hezkuntza Proiektua sustatzeko. Gizartean, familia eredu aldutzen bada ere eskolara etortzen den %90a familia tradizionala da (sexu berdineko bikotez osatuta) eta azkeneko urteotan gehitu da familia ugarien kopurua. Ikasketa maila erdiko delako esan daiteke nahiz eta jakinda alde handia dagoela familien artean. Hizkuntza aldetik, %25 euskalduna da, gehiengo erdalduna izanda eta atzerritarren kopurua jaitsi da arazo ekonomikoak direla medio ("Izarra Gasteiz Haurreskolaren hezkuntza proiektua", d.g.).

Bestetik, San Ignacio ikastetxea Adurtza auzoan dago kokatuta. Gaur egun, Haur Hezkuntzako lehenengo zikloan 2 urteko bi gela daude eta bigarren zikloan beste 3 urteko, 4 urteko eta 5 urteko bi gela daude ere. Hizkuntzari dagokionez, euskararen erabilera oso mugatua da. Ama hizkuntza euskara dutenen portzentajea oso txikia da Gasteizko auzo guztietan, eta Adurtzaren kasuan, portzentajea %2,5 eta %5 bitartean dago. Bestalde, jatorri desberdingo biztanleria eta aniztasunari dagokionez, immigrazio tasa gero eta altuagoa da, familia gehienak Marokotik eta Latinoamerikatik datozelarik. Gainera, baldintza ekonomiko-sozialak txarrak dira kasu gehienetan, eta kultura maila baxua da. Bistan dagoenez, pertsona, kultura eta aktibitatearen aniztasun handia dago Adurtzan eta San Ignacio eskolan aniztasun hau bermatzen da. ("San Ignacio ikastetxearen hezkuntza proiektua", d.g.).

Azterlana aurrera eramateko, haur talde bakoitzarekin saio batzuk eraman dira aurrera, Izarra Haur Eskolako umeekin ordubeteko 6 saio eta San Ignacio ikastetxeko umeekin, ordu eta erdiko lau saio, beraz, osotasunean 12 ordu izan dira. Eramandako materiala askotarikoa izan da; oihalak, tamaina eta desberdineko pilotak, tamaina desberdineko edalontziak, arropa, marakak, ukelelea, panderoa, kotxeak, kutxak, pieza ezberdinak... Eta hauek ikasgelatik zehar sakabanatzen, hurrek jolas librea burutu dute. Gainera, saioak igaro ahala, moldaketa batzuk egin izan dira material eta espazioei dagokienez.

Proposamen hau aurrera eraman duten partaideei dagokienez, lehenik eta behin aipatu behar da parte-hartzaileen izenak isilean gorde direla eta izen asmatuak erabili direla zorizko esleipen bat eginez, haien anonimatua bermatzeko. 0-1 urte tarteko 12 haur izan dira: Tokio, Stockholm, Rio, Denver, Oslo, Helsinki, Berlin, Paris, Madril, Lisboa, Berna eta Budapest. Bestetik, 2 urteko 10 haur: Espainia, Frantzia, Portugal, Alemania, Italia, Norvegia, Finlandia, Estonia, Holanda eta Hungaria.

Bi ikasgeletan, talde bakarrean sustatu da proposamena; alegia, ez da egin inolako talderik edo bazterketarik, une horretan ikasgelan zeuden hurrekin egin baita. Adina dela medio, gertatu izan da batzuek pentsatutako proposamenari ekitea, alegia, eramandako materialarekin jardutea; baina beste batzuek beste zerbaitetan egotea edota lotan egotea, baina horrek ez du oztopatu analisisa. Orokorrean, modu batean edo bestean denek parte hartu dute eta guztion behaketa sakona egin izan ahal da. Haien ezaugarriei begira, urtebeteko umeen kasuan, denak urtebetekin izaten den garapen prozesu horretan zeuden eta haien artean gaitasun eta aurrerapen desberdinak izan arren, guztiak katamarkatik ibilera dagoen prozesu horretan zeuden, guztiek era batean edo bestean jolasten zuten eta haien arteko elkarrekintzak eta gurekiko komunikazio ez berbala pixkanaka garatzen zebilen. 2 urteko umei dagokienez, haien arteko elkarrekintzak sumatzen ziren jolasterako orduan edota komunikatzeko orduan, baina egozentrismoa gailentzen zen beste guztiarengandik, dena beraientzat zela uste baitzuten.

## 6. EMAITZAK

Narrazio etnografiko guztiak jasota eta irakurrita, honen prozesuan zehar bildutako informazio guztiaren sintesia edukitzeko, antolakuntza bermatzeko eta emaitzak errazago aurkitzeko, lehen aipatutako dimentsio eta kategorien arabera aurkeztuko dira: materialak, mugimenduak eta harremana.

### 6.1 MATERIALAK

Dimentsio honetan, partaide guztiek material desberdinekin egin dituzten ideia desberdinak jaso dira. Ezaguna da objektuek haurraren eboluziorako duten garrantzia; izan ere, haurrek objektuak ezagutzeak eta egunero jolasteko erabiltzeak pixkanaka etorkizunean ezagutuko duten errealitate batera hurbiltzen ditu eta beren burua ezagutzeko aukera ere ematen diete.

Haurrak txikitatik gorputz osoarekin jolasten du, eta, gorputz-jolas horren bidez, manipulazioen, eraikuntzen, joan-etorrien eta abarren bidez, kanpoko munduarekin kontaktuan jartzen da.

*“Lisboak kutxan zeuden gaztaina guztiak atera zituen; nahiz eta hostoak eta pinaburuak egon eta horrek harritu ninduen; izan ere, nolabiateko hautaketa egin zuen.”* (N.E.4 2022/11/03)

*“Finlandia edalontziekin esperimentazioak egiten ibili da; hau da, hauek guztiak biltzen eta dorre bat eraikitzen eta gero edalontziak berriro ere sakabanatzen.”* (N.E.9 2023/03/20)



### **6.1.1 Oihalak/Arropa**

Urtebeteko umeeak oihalak ikusten dituztenean, haien bila joaten dira lehenik; izan ere, bada material bat ezaguna egiten zaiena, etxean asko ikus baititzakete. Hauek ezaguna dituztenez, badakite zer funtzio betetzen dituzte eta ez dituzte hauek erabiltzen pilotak izango balira bezala; alegia, ez dituzte botatzen edota ahora eramaten. Hauek, gorputzarekin dutela zerikusia badakite.

*“Lisboa oihalak arakatzen egon da eta bere gainean jarri egin du.”* (N.E.3 2022/10/24)

*“Parisek eskularrua hartu egin du eta eskuan sartu du.”* (N.E.3 2022/10/24)

*“Lisboa oihal desberdinekin ere egon da eta baten azpian sartu da, eta maindire bat izango balitz bezala erabili du.”* (N.E.5 2022/11/04)

Era berean, nagusiagoek kasu gutxiegi egiten zieten oihalei; azken batean, haientzat ez zen zerbait berezia. Hala ere, pixkanaka batzuk erabiltzen joan egin ziren eta mozorrotzen edota osagarriak ipintzen joan egin ziren eta besteak, hori ikusita gauza bera egiten hasi ziren. Gainera, esanahi desberdinak ematen hasi ziren oihalei eta arropen, baita sinbolikoa ere.

*“Finlandiak kapa jarri du eta egiten du superman-a (besoa altxa eta korrika egin). Haien kideek hori ikusita, beste oihal batzuk hartu dute.”* (N.E.9 2023/03/20)

*“Finlandiak bufanda jarri du lepoan eta dardarka hasten da hotza baldin badu bezala.”* (N.E.8 2023/03/14)

*“Alemaniak kapela jarri du buruan eta aspertzen zenean izateaz, besteengana hurbiltzen zen eta kapela haien buruan ipintzen zuen.”* (N.E.10 2023/03/21)

### **6.1.2 Objektuak**

Hurrek (txikitxoek nahiz nagusiagoek) era guztietako objektuak erabiltzen dituzte jolasteko: autoak, pilotak, edalontziak, piezak, kutzak... Eta adin goiztiar honetan, objektu horiek guztiak ikustean egiten duten lehen gauza horiek arakatzea da.

*“Egin zuten lehendabiziko gauza izan zen material horiek ikuskatu eta arakatu, haientzat berriak baitziren.”* (N.E.1 2022/10/10)

*“Haientzat ikasgela batean material horiek izatea berria zen, baina nabari zen etxean material horiek zituztela; izan ere, lehenik eta behin material horiek arakatu zituzten eta hauek behatu zituzten eta ziztu bizian jolas desberdinak burutu zituzten.”* (N.E.7 2023/03/13)

Hala ere, behin materialak behatuta eta arakatuta eta txikitxoek kasuan hauek ezagutzen joaten diren heinean, gehiago esperimentatzen hasten dira eta manipulazio edo ekintza mota desberdinak egiten dituzte. Guztiek egiten duten zerbait bada objektu hauek ahora eramatea; adibidez, pilotak.

*“Pilotekin murgilduz, ikuskatu nuena izan zen, ia guztiek hauek hartu eta ahoan sartzen zituztela; azken batean, haien adinean hartzen dituzten gauza guztiak ahora eramaten dituzte.”* (N.E.1 2022/10/10)

Era berean, hurrek objektuekin egiten dituzten beste ekintza batzuk badira hauek hartzea, botatzea, askatzea, elkartzea...

*“Batzuek pilota hauek hartu eta askatu egiten zituzten lurretik eta hauen atzetik joaten ziren berriro egiteko.”* (N.E.2 2022/10/17)

*“Edalontziak hartu eta botatzen zituzten eta gogorrenak lurrean kolpatzen zituzten eta bigunenak; alegia, plastikozkoak haien eskuekin aplastatzen zituzten.”* (N.E.2 2022/10/17)

*“Norvegiak kotxea mahaiaren alde batetik bestera gurutzatzen du.”* (N.E.8 2023/03/14)

*“Finlandia edalontziekin esperimentazioak egiten ibili da; hau da, hauek guztiak biltzen eta dorre bat eraikitzen eta gero edalontziak berriro ere sakabanatzen.”* (N.E.9 2023/03/20)

2-3 urteko umeen kasuan, ikus daiteke askotan objektuak modu sortzailean erabiltzen zituztela, ziurrenik lehenago ikusteagatik edo aurretik egiteagatik, hau da, helduek erabiliko luketen bezala. Azpimarratzekoa da, halaber, objektu askori beste esanahi bat edo beste modu berezi bat esleitu ziotela objektu harekin jolasteko, mundu sinbolikora hurbilduz.

*“Finlandia saiatzen da bongoa botatzen pilota batekin (boloak balira bezala).”* (N.E.9 2023/03/20)

*“Espainiak pilotak saskiratzen ditu kapelan.”* (N.E.8 2023/03/14)

*“Norvegiak jostailuzko monopatinaren gurpila erabili du “pua” bat bezala; hau da, ukelelearen koordak igurtzi ditu musika sortzeko.”* (N.E.10 2023/03/21)

### **6.1.3 Musika-tresnak**

Prozesu honetan garrantzitsua da hurrek era guztietako objektuak eskura izatea, era guztietako esperimentazioak egin ditzaten. Musika-tresnek mesede egiten diete eta aukera desberdinak ematen dizkiete; izan ere, haurrentzat musika gauza itzela da, esperientzia paregabea, eta txikitxoek kasuan adibidez, erabat gozatzen dute musika

entzutean eta seguru eta lasai sentitzen dira.

*“Tokio jauzi zen eta negar hasi zen baina irakasleak abestu eta nik ukelelea jo eta lasaitu egin zen.”* (N.E.6 2022/11/07)

*“Iribarre bat botatzen zuten guk marakaekin soinua egiten genuen aldiro.”* (N.E.1 2022/10/10).

Haiek ere, modu batean edo bestean musika sortzen zuten ere. Txikitxoek kasuan, orokorrean instrumentuak kolpatzen zituzten edota lurrera botatzen zituzten baina pixkanaka gehienek instrumentu bakoitzaren funtzioa ulertu zuten eta musika sortzen saiatzen ziren. Nagusiagoek, berriz, bazekiten nola sortu musika eta uneoro zebilen instrumentuak jotzen, musika sortzen... banaka nahiz taldeka.

*“Oslok marakak hartu eta soinua egin zuen kolpeak emanez.”* (N.E.6 2022/11/07)

*“Estokolmok ukelelea jo du.”* (N.E.6 2022/11/07)

*“Alemaniak panderetarekin musika sortzen du uneoro eta dantzan hasten da.”* (N.E.7 2023/03/13)

*“Norvegiak, Alemaniak eta Portugalek bakoitzak instrumentu bat jo egin du eta hiruon artean musika sortu dute.”* (N.E.10 2023/03/21)

## 6.2 MUGIMENDUAK

Haurrak bere gorputzari eta inguruneari egiten dizkion lehen miaketak mugimenduak ematen dizkio. Azken finean, adin horretan, haurra, normalean, etengabe mugitzen da, dela arrastaka, katamarka, oinez... eta espazioetatik ibiltzen da material desberdinak arakatzu eta jolas ezberdinak burutzen.

### 6.2.1 Estatikoa

Txikitxoek kasuan eta haurraren garapenaren arabera, gerta daiteke oraindik aske mugitzeko gaitasun hori ez izatea, eta horregatik igarotzea denbora gehiena estatiko espazio berean. Hala ere, gaitasuna izan arren, adibidez 2-3 urteko umeen kasuan, posible da ere umea arrazoi desberdinengatik apenas ikasgelatik mugitzea eta denbora luzeena ematea espazio konkretu batean.

*“Helsinki denbora guztian espazio batean egon da ,ez baitaki ibiltzen ezta katamarka ere.”* (N.E.6 2022/11/07)

*“Espainia denbora guztian egon da polizia kotxearekin espazio batean, beste objektuekin jolastu gabe edo bere kideekin jolastu gabe.”* (N.E.8 2023/03/14)

*“Holanda, aurreko egunean bezala, denbora luze ibili da bakarrik izkin batean, eta bere kideak etortzen zirenean beste espazio batera mugitzen zen bertan egoteko.”* (N.E.10 2023/03/21)

### **6.2.2 Katamarka**

Bestetik, urtebeteko umeen kasuan badira garatuagoak dauden haurrak eta beraz katamarka badakite mugitzen. Hauek, orokorrean, espazio anitz arakatzen dituzte, mugitzeko gaitasun hori dutelako eta aurrera eraman nahi dutelako. Gainera, ez da ahaztu behar mugimendu jakin batzuek plazer-sentsazioak eragiten dizkiotela, eta horrek haren garapena errazten duela, hala nola haurrak zutik mantentzea hartzen duen uea.

*“Budapest hasiera batetik katamarka ibili da klasetik zehar, material berria ikusten eta arakatzen.”* (N.E.4 2022/11/03)

*“Denver zutik mantendu zen segundutxo batzuk eta behin eta berriro errepikatzen egon zen.”* (N.E.6 2022/11/07)

Nagusiagoen kasuan, ibiltzen jakin arren, askotan beste aukera batzuk erabiltzen dituzte leku batetik bestera desplazatzeko edota jolasean egoteko, katamarka, hain zuzen ere.

*“Hungaria katamarkan ibili da leku batetik bestera joaten eta galdetu diodanean zergatik ez zen oinez joaten, helarazi dit nahiago zuela horrela.”* (N.E.9 2023/03/20)

*“Portugal eta Italia belauniko jarri dira eta elkarri pilota pasatzen egon dira. Pilota ez zutenean hartzen eta harengana joan behar zirenean katamarka joaten ziren, ibili orde.”* (N.E.7 2023/03/13)

### **6.2.3 Ibilera**

Haurrek ibiltzen ikasi ondoren, orokorrean katamarka alde batera utzi eta hankak erabiltzen dituzte mugitzeko modu bakar gisa. Ibiltzen jakiteak, gainera, espazio guztietan ahalik eta azkarren eta arinenen mugitzeko aukera ematen die, eta desplazamendu luzeak egiten dituzte gelako bazter guztietatik.

*“Madril ikasgelatik zehar egon da ibiltzen espazio guztiak arakatzen eta material guztia ikuskatzen.”* (N.E.4 2022/11/03)

*“Gainera, orokorrean espazio guztietatik ibili dira jolasean, uneoro gelditu gabe eta dezplazamendu horiek ibiltzen burutzen zituzten.” (N.E.7 2023/03/13)*

## 6.3 HARREMANAK/ELKARREKINTZAK

Gizakia izaki soziala da, edozein gauzatarako erlazionatu edo harremanetan jarri behar dena. Haurra, txiki-txikitatik, inguruan duen guztiarekin erlazionatzen da, espazioekin, objektuekin eta pertsonekin, bai irakaslearekin, adibidez, eta bai ikaskideekin.

### 6.3.1 Inongo harremanik

Urtebeteko haurren kasuan eta 2-3 urteko umeen kasuan, harremanak egiteko gaitasuna eta beharra izan arren, batzuetan gertatzen da harremanak egiteko nahia ez izatea eta bakarrik egotea besteak dauden lekuetara hurbildu gabe.

*“Berlin bakarrik egon da izkin batean eta ez da mugitu, aurreko saioetan bezala.” (N.E.3 2022/10/24)*

*“Holanda, aurreko egunean bezala, denbora luze ibili da bakarrik izkin batean, eta bere kideak etortzen zirenean beste espazio batera mugitzen zen bertan egoteko.” (N.E.10 2023/03/21)*

### 6.3.2 Elkarrekintzak haurren artean

Era berean, urtebeteko umeak, beste umeekin elkarrekintzak izaten hasten dira. Jolasari dagokionez, orokorrean bere kabuz jolasten dira era desberdinetan, baina arrasto txikiak uzten dituzte besteekiko elkarrekintzak desberdinak aurrera eramanda.

*“Oslok eraikuntzak egin ditu Lisboarekin, bion artean piezak bata bestaren gainean ipiniz.” (N.E.6 2022/11/07)*

*“Budapestekin jokatu du pilotarekin.” (N.E.5 2022/11/04)*

*“Denver txaloak egin ditu, Budapestek ukelelea jo bitartean.” (N.E.6 2022/11/07)*

Nagusiagoen kasuan, haiek etengabe dabilta beste umeekin elkarrekintzak izaten; haien artean jolas ezberdinetara jolasten, material desberdinak elkar erabiltzen, haien artean haserretzen, disfrutatzen...

*“Italiak Portugalekin elkar truke bat egin du: honek pilota eman dio eta Portugalek kotxea.” (N.E.7 2023/03/13)*

*“Norvegiak eta Italiak kotxea pasatzen dute mahaiaren alde batetik bestera.” (N.E.8 2023/03/14)*

*“Finlandiak, Norvegiak eta Alemaniak jolastu dute elkarrekin pilotarekin eta izkutaketara (pilotarekin harrapatu behar zuten elkar).” (N.E.9 2023/03/20)*

*“Portugal haserre dago Finlandiak duen kotxea nahi duelako eta honek uzten dio berarekin jolasten kotxearekin, bata besteari kotxea pasatuz.” (N.E.10 2023/03/21)*

*“Alemania saiatu egin da Espainiak jolas dezan; objektuak eskaintzen dizkio eta eskua ematen dio.” (N.E.9 2023/03/20)*

### **6.3.3 Komunikazioa haurren artean**

Urtebeteko umeen komunikazioari dagokionez, esan daiteke haurrek hitz egiteko gaitasuna oraindik ez izan arren, besteekin komunikatzeko forma desberdin ugari eramaten dituztela aurrera bere kideei zerbait helarazteko; negarra, zezeltzea, keinuak... Baita hitz solteak batzuetan ere.

*“Tokiok buruarekin Estokolmo baztertzen zuen nolabit helaraziz berak jango zuela hurrengo eta ez Estokolmok.” (N.E.4 2022/11/03)*

*“Estokolmok Tokiori pilota bat lapurtu zion eta hau haserretu egin zen berarekin eta negarrez eta lurrean kolpeak emanaz adierazi zion.” (N.E.4 2022/11/03)*

*“Madrilek Oslori ura eskaini zion botila hurbilduz eta “AGUA” esanez.” (N.E.5 2022/11/04)*

Bestetik 2-3 urteko umeek, hitz egiteko gaitasun askoz garatuagoa dute eta orokorrean hitza erabiltzen dute bere ikaskideekin komunikatzeko. Gainera hitz horiek gailentzeko, hizkuntza ez-berbala ere eramaten dute aurrera; hau da, lehen aipatutako keinuak, negarrak...

*“Portugal ukelelea jotzen aritu da zenbaitetan eta besteengana hurbiltzen zen eta zera esaten zien: “Musika”.” (N.E.7 2023/03/13)*

*“Portugal, Norvegiaren atzetik segika ibili zen polizia kotxearekin “nino” eta polizia esaten.” (N.E.8 2023/03/14)*

*“Finlandiak edalontziak eskatu dizkio Frantziari eta honek ematean, “gracias” esan dio.” (N.E.9 2023/03/20)*

*“Italia saiatu da aldatzen Norvegiari ukelelea bi piloten ordean eta honek ezetz esan dio buruarekin. Hala ere, aurrerago baietz esan dio “Si” hitza erabiliz.” (N.E.10 2023/03/21)*

### **6.3.4 Helduekiko harremanak/elkarrekintzak**

Adin horietako hurrek helduak eta batez ere irakasleak erreferentetzat dituzte, eta hala adierazi egiten dute egiten dituzten ekintzen bidez; adibidez, eroso sentitzen ez direnean, besarkada bat behar dutenean, min hartzen dutenean, haiekin jolastu nahi dutenean...

*“Oslok guk irtetea negar egin du eta gurekin joan egin nahi zen.”* (N.E.6 2022/10/17)

*“Denverrek besarkadak eskatzen zizkidan uneoro”* (N.E.3 2022/10/24)

*“Gaur, umeez ezagutzen ninduten eta atea zabaldu bezain pronto niregana etorri dira besarkadak ematera.”* (N.E.8 2023/03/14)

*“Hungaria nirekin ibili da jolasean pilotarekin, batak besteari pilotarekin paseak egiten.”* (N.E.10 2023/03/21)

*“Alemania niregana etorri da eta kapela buruan jarri dit eta nitaz barre egin du.”* (N.E.9 2023/03/20)

### **6.3.5 Helduekiko komunikazioa**

Lehen aipatu bezala, hurrek (urtebetekoek) hitz egiteko gaitasuna oraindik ez eduki arren, helduekin edota irakasleekin komunikatzeko metodo desberdinak erabiltzen dituzte; alegia, gorputz-hizkuntza.

*“Eskolara sartu ginenean ume bat hurbildu zitzaigun eta eskuarekin agurtu zigun.”* (N.E.2 2022/10/17)

*“Parisek pilotak eskatu dizkit besoa altxatuz eta hauek seinalatuz.”* (N.E.3 2022/10/24)

*“Berna irakasleengana hurbildu da eta “mmm” soinua egiten hasi da, gose jarraitzen zela aldarrikatuz.”* (N.E.3 2022/10/24)

Bestetik, helduagoen kasuan, komunikatzeko gaitasuna dute eta uneoro dabilta helduekiko komunikazio hori areagotzen; bai galderak egiten, laguntza eskatzen, bitxikeria bat helarazteko, zerbaiti edo norbaiti buruz kezatzeko, bere haserrea adierazteko...

*“Espainia niregana askotan hurbildu da nirekin hitz egiteko; izan ere, hitz egiteko gaitasun nahikoa zuen eta nahiago izan du nirekin egotea eta ni ezagutzea, jolastea baino. Halako galderak egiten zizkidan: “Como te llamas? Vives en Vitoria? Te gustan los coches?...”* (N.E.7 2023/03/13)

*“Espainiak galdetu zion beste bati zer jartzen zuen kotxean eta erantzunik ez zuenez jaso niregana etorri zen eta niri galdetu zidan. Polizia jartzen zuela esan nionean, besteengana jo zuen eta hasi zen esaten “begira, polizia.” (N.E.9 2023/03/20)*

*“Portugal pilota pasatzen ibili da edalontzi batetik bestera eta lortzen zuenean esaten zidan: “mira, lo has visto?” (N.E.10 2023/03/21)*

*“Norvegiak kapela atzeruntz jartzen du eta Alemaniarengana joaten da eta “mira” esaten dio. Ondoren biak niregana etorri dira eta gauza bera hasi dira esaten: “mira,mira.” (N.E.8 2023/03/14)*

*“Italiak kotxea lapurtu dio eta niregana etorri da negarrez eta oso haserre eta hasi da kotxea seinalatzen eta esaten “coche mio.” (N.E.7 2023/03/13)*

## **7. ONDORIOAK**

Lehen haurtzaroaren inguruko ikerketa egin ostean, emaitzen analisisa kontuan hartuta marko teorikoarekin eta beraz gai honen inguruan adituek diotenarekin alderatu da eta ondorio batzuk atera egin dira, lehen haurtzaroaren, adin horien jolasteko eren eta gorputz-adierazpenaren inguruan. Horretarako, jarraian dauden ideia eta ondorio guztiak literatura zientifikoarekin kontrastatu dira.

Lehen haurtzaroaren estereotipoak zapaldu nahian, azpimarratu nahi dut etapa honen konplexutasuna; izan ere, lehenik eta behin, haurrak ez daude bertan bakarrik lo egiteko edo nonbait egoteko, baizik eta haurrak bertan jolasten dira, garatzen dira, elkarrekintzak izaten dituzte eta hori guztia egunero izaten da eta gero eta aldaketa edo hobekuntza gehiago jariatzen da. Ildo horretan, bestetik, irakasleak dira hori guztia behatu, zaindu eta kudeatu behar dituztenak eta, garapen horren jarraitasun eta konplexutasuna dela medio, ez da batere erraza (Delgado 2011 eta Lizaso 2013).

Aipatutako garapen hori progresioan dabil eta umeak jolasaren bitartez lortzen du garapen hori; izan ere, lehen haurtzaroan jolasa da ardatza eta umeak uneoro dabilta jolasten (Vygotski 1979). Gainera, ikusgai egon da ikerketa honetan, adin honetako haurrak uneoro dabiltzala bere mundua deskubritzen zentzumenen bitartez eta hori jolasaren bidez gauzatzen dute. Ikusmenari, entzumenari eta ukimenari esker, haien ingurua arakatu dute; bai espazioak eta bai materialak, hauen ezaugarriak identifikatzeko eta haien arteko erlazioak ezartzeko (Delgado 2011).

Erlazio hauek egiteko, haien gorputz-adierazpena auzi esanguratsua izan da, haiek esperimendazio eta ekintza desberdinak aurrera eramanez ahal izateko. Azken batean, haien



inguruan atera diren emaitza guztiak haien gorputz-adierazpenarekin egon dira lotuta, hauxe baita erabiltzen duten tresna nagusia jolasteko, komunikatzeko edota haien arteko elkarrekintzak sustatzeko (Abad 2011). Are gehiago, baieztatu da umeez hitz egiteko gaitasuna izan arren, gorputz-hizkuntza ere erabiltzen dutela, helduok bezala (Gállargo 2003).

Gainera, adin honetan jolas librean aritzen direlarik kontuan izanda, jolas honek duen garrantzia nabarmendu nahi da; azken batean, haiek jolasten direnean, dibertitzeaz gain, garapen kognitiboa eta mugimenaren garapena bermatzen dute. Izan ere, aldaketa itzelak egon dira lehenengo saioaren eta azkenekoaren artean bi haur-talde desberdinei begira eta soilik hilabete bat igaro egin da bakoitzaren hasierako eta azkeneko saioen artean; horregatik baieztatu daiteke etapa horretan garapena sekulakoa dela egun batetik bestera (Ruiz de Velasco eta Abad, 2019).

Aztertu ahal izan da ere nola haurrak, haien gorputza eta eskaintzen zaizkien materialak direla medio, haien inguruko mundua ulertu eta ingurunearekin lehen elkarrekin izaten hasten direla. Hain zuzen ere, ikasleak jolasten ari diren bitartean objektuak manipulatu ari dira denbora eta espazio jakin batean, eta beren ekintzak inguratzen dituen munduarekin lotzen ikasten dute. Horregatik, material eta baliabideak proposatzea gorputza integrazteko funtsezkoa da (Pons eta Arufe, 2015).

Ildo horretan, haurrak gorputz-hizkuntzarekin duen harremana ikasgelan berresten dela aipatu daiteke; alegia, txikitatik gorputz-hizkuntza sustatzen dela ikasleengan. Hemendik abiatuz, jolasa ikasleen gorputz-hizkuntza sustatzeko modurik eraginkorrenetako bat da, beren emozioak eta besteen emozioak identifikatzen jakin dezaten, ondoren emozio horiek azalerrazten eta adierazten jakiteko. Gainera, irudimen eta sormen giroan dudenez, benetan motibagarria eta interesgarria da Haur Hezkuntzako haurtzat, haien irudimena eta fantasia pixkanaka garatzen baitaude (Lacarcel, 2019).

Haurren behaketa sakona egin ondoren, urtebeteko umeei begira atera den ondorio nagusia izan da, oro har, banakako jolasa gauzatzen dutela eta objektu horren erabilera praktikoa sustatzen dutela. Hau da, urtebeteko umeez edozein objektua arakatu dutenean eta honekin jolasten dutenean, ez diote bigarren ikuspegi edota bigarren erabilera bat ematen; alegia ez dute sinbolismora jotzen (Diniz eta Correia da Silva, 2018). Era berean, haurra jolas libre horretarako, gorputzaz baliatzen da edozer egiteko eta, behatu den gisan, ekintza desberdinak egiten ditu kanpoko munduko objektuekin bere pertzepzio-gaitasunekin harremanetan jartzeko; esanak esan, tamaina, forma... (Arnáiz eta Bolarín, 2000).

Bestetik, bi urteko umeen kasuan errealitatea desberdina da; izan ere, hauek beste funtzio desberdina ematen diote jolasari. Frogatu egin da adin honetako haurrek jolas sinbolikoa gauzatzen dutela, haien inguruarekin eta hurbileko errealitatearekin murgilduagoak egoteko; objektuen eta haien artean elkarrekintzak egiten edota materialei ezagutzen duten zentzu sinbolikoa eta fantastikoa emanaz (Novillo 2019). Horregatik, suposatu daiteke, jolasa eta jolas sinbolikoa adin horretan, jolas hutsa izateaz aparte, tresna garrantzitsua dela haurra pixkanaka garatu eta errealitatean murgildu dadin (Arnaiz 1991).

Jolasaren bidez, gainera, haur bakoitzak bere gorputza baliatuz espazioak eta materialak erabiltzen dituela ikusi ahal izan da. Hau da, objektuak erabiltzeko modua, besteengana hurbiltzeko edo ez hurbiltzeko modua, mundura zabaltzeko modua gorputz-adierazpenaren bidez egiten dute, eta atera daitekeen ondorio nagusia bada haur bakoitzak modu desberdinean kudeatzen duela, bere izaeraren arabera, hain zuzen ere (Ortega Ruiz, 1992).

Ondorio hauek beste bide batetik eramanda, adierazi daiteke ikerketa hau bat etorri dela arestian aipatu diren helburuekin. Hasiera batean, zalantzak eta ezjakintasunak jario ziren proposamen honen inguruan, batez ere haien adina oztopo bezala ikusten zelako. Hala ere, esparru teorikoak eskaini didan informazioa oso baliagarria eta interesgarria izan zait hurrengo ondo definitzeko. Azken batean, ezagutza horiek erabilgarriak izan dira saioak aurrera eramateko eta beraz ikerketa bat egiteko. Saioak aurrera egin ahala, beraz, eta, behin amaituta egindako analisisa, baieztatu daiteke adin hauetako haurrak etengabe dabilzala jolasten eta gorputz-hizkuntza presente dagoela haien egunerokotasunean materialak arakatzeko orduan eta besteekin komunikatzeko orduan. Horregatik, aitortu daiteke Haur Hezkuntzako lehen zikloaren errealitate ezberdinen ezagutzak; batik bat, jolasa eta gorputz-adierazpenaren inguruan barneratu direla eduki teorikoarekin eta praktikaren bitartez.

## **8. HOBETZEKO PROPOSAMENA**

Lan honi dagokionez aipatzekoa da orokorrean nahiko laua geratu dela islatutako guztia; azken finean, gaia oso orokorra zen eta atera diren emaitza guztiak marko teorikoak azpimarratzen zuena agerian utzi du, aspaldi literatura zientifiko hori nabarmendu zen eta. Gainera, hasiera batean galdera eragilerik ez izateak edota gaiaren inguruko zehaztasun bat landu ez izateak eragin du lanak orokortasuna bermatzea eta ez izatea ezustekorik esparru teorikoari begira. Horregatik, hobekuntza gisa etorkizun baterako, egingo nukeena izango litzateke nire buruari galdetzea zer jakin nahi dudan gai honen inguruan edota non arduz

nahi dudan nire ikaskuntza; bertan sakonki murgiltzeko eta ikerketa zehatza eta aberatsago bat egiteko.

Aurretik aipatutakoaz aparte, aitortu behar dut harro nagoela egin dudan lanarekin eta ikerketarekin eta bertan murgiltzen bagara esango nuke asko ikasi dudala gaiaren inguruan. Ikerketari begira, esan bezala, ateratako emaitzak orokorrean espero nituenak izan dira; alegia, esparru teorikoak ziona. Hala ere, ikerketa berriro egingo banu bi jarraibide ezberdin jarraituko nituzke.

Alde batetik, materialetan gehiago zentratuko nintzateke eta material eta objektu ezberdinak eramango nituzke; izan ere, ikerketarako egunero gutxi gora behera material berdinak eramatea beharbada ez zen aukera onena; azken finean, umeak denbora igaro ahala aspertzen ziren eta beste zerbaitetan egoten ziren. Gainera, azkeneko saioetan, orokorrean, ezaguna zuten material guztia eta berezitasun gutxi egiten zituzten eta horrek eragiten zuen nire ikerketa pobretzea. Horregatik, hobekuntza gisa egingo nukeena izango litzateke materialaren aniztasuna bermatzea eta bi saio bakoitzeko materialak aldatzea eta material eta objektu ez-ohikoak; adibidez, pilotak, kotxeak edo musika tresnak ordez plastikozko botilak, komuneko papera... ere eramatea, aukera eta jolas desberdinak eskaintzen dituzten materialak, alegia.

Bestetik, ikerketa orokorra egin dut eta adinen arabera sailkatu ditut emaitzak askotan; alegia, urtebeteko umeak eta 2-3 urteko umeak. Honi tiraka, beste era desberdineko sailkapenak egiteak beharbada aberastasuna emango lioke nire ikerketari; adibidez, generoaren aldagaia ere kontuan hartuz. Horrela, analizatuko nuke ea, txiki-txikitatik, esleitutako genero batek edo besteak joera duen zerbaitetara jolastera edota eredu bat azalertzera edota nortasun desberdin bat izatera.

Etorkizunari begira, aipatutako guztia izango nuke presente ikerketa jarrai dadin. Gainera, interesgarria izango litzateke ikerketa jarraitzea bigarren haurtzaroan, horrela konparazioak eta garapenak ikusiko lirateke.

## 9. BIBLIOGRAFIA

- 237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, Vitoria-Gasteiz, 2016ko urtarrilaren 15a, 9. zk., 1-47. <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2016/01/1600142e.pdf>
- Abilleira, M., eta Fernández, M.(2017). Análisis de la formación del maestro/a de educación infantil en expresión corporal. *EmásF*, (49), 36-59. [Análisis de la formación del maestro/a de educación infantil en expresión corporal - Dialnet \(unirioja.es\)](#)
- Álvarez-Uria, A., Garay, B. eta Vizcarra, M. (2022). Las instalaciones artísticas en educación infantil: Experiencias lúdicas y performativas. *Arte, Individuo y Sociedad*, 34(3), 891-910 [Las instalaciones artísticas en educación infantil: Experiencias lúdicas y performativas - Dialnet \(unirioja.es\)](#)
- Arnáiz, P. (1991). *La práctica psicomotriz como respuesta educativa. Encuentro de Psicomotricidad*. Armarú
- Berger Stassen, K. (2007). *Psicología del desarrollo: infancia y adolescencia* (7.ed). Panorámica.
- Bruner, J. (1984). *Acción, pensamiento y lenguaje*. Alianza
- Campo, L. (2009). Características del desarrollo cognitivo y del lenguaje de niños de edad preescolar. [Master amaierako lan argitaratu gabea 341-351] Barranquilla: Universidad Simón Bolívar. <https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=497552354007>
- Carrillo, M.J. (2020). El juego como motivación en el proceso de enseñanza aprendizaje del niño. *Revista Arbitrada Interdisciplinaria Koinonía*, 5(1), 430-448. [El juego como motivación en el proceso de enseñanza aprendizaje del niño - Dialnet \(unirioja.es\)](#)
- Casanova, P., Fernández, E., Pérez, A., Serrano, R., Durán, F. eta Caás, R. (2010). *Temario Educación Infantil*. Paraninfo.
- Cañas, J. (2009). *Didáctica de la expresión dramática: una aproximación a la dinámica teatral en el aula*. Octaedro.
- Chateau, J. (1987). *Psicología de los juegos infantiles*. Kapelusz.
- De Castro, A. eta Martínez, J. (2013). Investigando la renovación pedagógica en educación infantil: un estudio de caso. V Congreso Mundial de Educación Infantil y Formación de Educadores: (2013), Grupo de Investigación Hum 205 de las Universidades Andaluzas.
- DeWalt, K.M. eta DeWalt, B.R. (2002). *Participant observation: a guide for fieldworkers*. Rowman and Littlefield Publishers. [Participant Observation: A Guide for Fieldworkers - Kathleen Musante DeWalt, Billie R. DeWalt - Google Libros](#)

- Decroly, E. (2002). *El juego educativo: iniciación a la actividad intelectual y motriz*. Morata.  
[El juego educativo: iniciación a la actividad intelectual y motriz - Ovide Decroly, E. Monchamp - Google Libros](#)
- Delgado, M.E. (2011). La dramatización, recurso didáctico en educación infantil. *Pedagogía magna*, (11), 382-392. [La dramtización: recurso didáctico en educación infantil - Dialnet \(unirioja.es\)](#)
- Díez Navarro. M. C. (2013). *Diez ideas clave. La educación infantil*. Graó. [10 ideas clave. La educación infantil - Dialnet \(unirioja.es\)](#)
- Diniz, L. eta Correia da Silva; R. (2018). Infâncias no campo: brinquedo, brincadeira e cultura. *Childhood & philosophy*, 14(24), 189-212.  
 DOI:[10.12957/childphilo.2018.30364](https://doi.org/10.12957/childphilo.2018.30364)
- Dorr, A., Gorostegua, M. eta Bascuñan, M. (2008). Psicología general y evolutiva. *Revística Médica de Chile*, 136(2). <http://dx.doi.org/10.4067/S0034-98872008000200021>
- Durán, S.M. (2012). Los rostros y las huellas del juego. Creencias sobre el juego en la práctica docente del profesorado en dos centros infantiles de la secretaría distrital de integración social [Doktorego tesi argitaragabea].Universidad de Granada. [Los rostros y las huellas del juego: creencias sobre el juego en la práctica docente del profesorado en dos centros infantiles de la secretaría de integración social \(SDIS\) en Bogotá- Colombia - Dialnet \(unirioja.es\)](#)
- Elkonin, D. (1985). *Psicología del juego*. Visor libros
- Elorza, C. (2011). El juego heurístico. In *Aula de infantil*, (64), 9-11. [El juego heurístico - Dialnet \(unirioja.es\)](#)
- Erikson, E. (1974). *Identidad, Juventud y Crisis*. Paidós.
- Fernandez, M. eta Feliu Torruella, M. (2017). Reggio Emilia: An Essential Tool To Develop Critical Thinking in Early Childhood. *Journal of new approaches in ducational Research*, 6(1), 50-56. [Reggio Emilia: An essential tool to develop critical thinking in early childhood - Dialnet \(unirioja.es\)](#)
- Gallart, M.A. (1992). La integración de métodos y la metodología cualitativa. Una reflexión desde la práctica de la investigación. In Centro editor de América Latina. *Métodos cualitativos II: La práctica de la investigación*. (107-149). [Microsoft Word - MIS\\_Gallart\\_Unidad\\_3.doc \(terras.edu.ar\)](#)
- Garaigordobil, M. (1990). *Juego y desarrollo infantil*. Seco Olea.
- García, A. eta Llul, J. (2009). *El juego infantil y su metodología*. Editex.
- Gárgallo Lopez, B. (2003). Un modelo de evaluación del sistema educativo. *Revista española de pedagogía*, 61(224), 33-69. [Un modelo de evaluación del sistema educativo - Dialnet \(unirioja.es\)](#)

- Goldschmied, E. eta Jackson, S. (2000). *La educación infantil de 0 a 3 años*. Morata.
- González, I. eta García, L. (2013). Configuración de ambientes de aprendizaje en la primera infancia. V Congreso Mundial de Educación Infantil y Formación de Educadores (2013), Grupo de Investigación Hum 205 de las Universidades Andaluzas.
- Gutiérrez, E. (2014). Reflexiones sobre la concepción del cuerpo y del movimiento para una educación integral de la primera infancia. *Praxis Pedagógica*, (15), 15-42. [Vista de Reflexiones sobre la concepción del cuerpo y del movimiento para una educación integral de la primera infancia \(uniminuto.edu\)](#)
- Izarra Gasteiz Haurreskolaren hezkuntza proiektua (d.g.)
- Juaristi, P. (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea. [00 Gizarte Ikerketa teknikak \(ehu.es\)](#)
- Kállo, É., eta Balog, G. (2013). *Los orígenes del juego libre*. Magyarországi Pikler-loczy.
- Lacárcel Urbano, B. (2011). La dramatización en Educación Infantil para la mejora educativa. *Revista digital Aula del Pedagogo*, (108), 120-133. [La Dramatización en Educación Infantil para La Mejora de La Innovación Educativa | PDF | Jardín de infancia | Lenguaje corporal \(scribd.com\)](#)
- Lefrancois, G. L. (2001): *El ciclo de la vida*. International Thomson.
- Lizaso, I. (2013). *Garapenaren psikologia*. Oinarrizko Psikologia Prozesuak eta haren Garapenaren Saila: Euskal Herriko Unibertsitatea. [Garapenaren Psikologia — UPV/EHU Ikasmaterialak](#)
- Lozios, C. (1969). *Play behaviour in higher primates*. Primate ethology
- Martínez, J. (2011). Métodos de investigación cualitativa. *Revista de Investigación Silogismo*, 1(8), 1-43. [\(PDF\) JORGE MARTÍNEZ RODRÍGUEZ | Carlos Jose Morales Castellanos - Academia.edu](#)
- Martínez, M., eta García, R. (2018). El juego como motor del desarrollo y el aprendizaje en el ciclo 0-3: una mirada desde la práctica reflexiva. *Educación y Futuro*, (39), 149-176. [Juego.pdf \(educacion.gob.es\)](#)
- Mesa, J. (2000). *Psicología Evolutiva de 0 a 12 años: Infancia Intermedia*. McGraw-Hill.
- Novillo, S. (2019). El juego simbólico. *Alea Jacta Est*, (1), 113-155. [alea-jacta-est-nc2ba-1.pdf \(wordpress.com\)](#)
- Palau, E. (2005). *Aspectos básicos del desarrollo infantil: La etapa de 0 a 6 años*. Grupo Planeta (GBS).
- Parra, J. (2011). *Didáctica de la Educación Infantil*. Ibergarceta.
- Pecci, M., Herrero, T., López, M. eta Mozos, A. (2010). *El juego infantil y su metodología*. McGraw-Hill.
- Piccolo, V. eta Moreira, W. (2015). *Movimiento y expresión corporal en Educación Infantil*. Narcea

- Pons, R; eta Arufe, V. (2016). Análisis descriptivo de las sesiones e instalaciones de psicomotricidad en el aula de Educación Infantil. *Cronograma*, (2), 145-146. [Análisis descriptivo de las sesiones e instalaciones de psicomotricidad en el aula de educación infantil \(udc.es\)](#)
- Porlán, R. (2008). *El diario de clase y el análisis de la práctica*. Averroes
- Prieto, M.A. eta Medina, R. (2005). *El juego simbólico, agente de socialización en la Educación Infantil: planteamientos teóricos y aplicaciones prácticas*. UNED
- Requena, M. eta Jiménez, M. (2003). *Metodología del juego*. Secretaría General Técnica. [Metodología del juego: la observación del juego \(38 p.\) unidad 9 ... - María Dolores Requena - Google Libros](#)
- Ruiz De Velasco, Á. eta Abad, J. (2011): La formación del símbolo. In *El juego simbólico Graó*, (1), 27-45. [El juego simbólico - Angeles Ruiz de Velasco Galvez, Javier Abad Molina - Google Libros](#)
- Rüssel, A. (1985). *El juego de los niños*. Herder.
- Saad, F.J. eta Prodócimo, E. (2010). Trabalho corporal na educação infantil : afinal, quem deve realizá-lo ?. *Revista de Educação Física*, 16(3), 708–713. <https://doi.org/10.5016/1980-6574.2010v16n3p708>
- San Ignacio ikastetxearen hezkuntza proiektua (d.g.)
- Sanz, M.T. (2003). El juego heurístico: a mi propio ritmo. In *Escuela en acción Infantil*, (10597), 10-11.
- Schensul, L. Schensul, J. eta LeCompte, D. (1999). *Essential ethnographic methods: Observations, interviews, and questionnaires*. Rowman and Littlefield Publishers. [Essential Ethnographic Methods: Observations, Interviews, and Questionnaires - Stephen L. Schensul, Jean J. Schensul, Margaret Diane LeCompte - Google Libros](#)
- Shaffer, R.D. eta Kipp, K. (2007): *Psicología del desarrollo: Infancia y adolescencia*. International Thomson.
- Stern, A. (2017). *Jugar. Albuixech*. Litera Libros.
- Tanner, J.M. (1990): *Fetus into man: Physical growth from conception to maturity*, Harvard University, 2. liburukia, Press Cambridge, MA.
- Tonucci, F. (1997). La verdadera reforma empieza a los tres años. *Investigación en la Escuela*, (33), 5-16. [SKMBT\\_C45212012019481.pdf \(us.es\)](#)
- Vázquez, R. (2011). *El juego en la educación escolar*. Teide. [El Juego en la Educación Escolar - Rodrigo Vázquez Neira - Google Libros](#)
- Vizcarra M.T. (2014). *Komunikazioa eta gorputz adierazpena Haur Hezkuntzan*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea. [09\\_gorputz\\_adierazpena\[1\].pdf \(studylib.es\)](#)
- Vygotsky, L. (1979). *El desarrollo de los procesos psicológicos superiores*. Crítica.
- Wallon, H. (1979). *La evolución psicológica del niño*. Crítica.

Wallon, H. (1987). *Psicología y educación del niño: una comprensión dialéctica del desarrollo y la educación infantil*. Visor

Zabalza, M. (2008). *Didáctica de la Educación Infantil: Primeros pasos*. Narcea.



## 10. ERANSKINAK

### 10.1 NARRAZIO ETNOGRAFIKOAK

#### 10.1.1 IZARRA HAUR ESKOLA

##### Lehenengo eguna 2022/10/10

Lehenengo egun honetan, klasera sartu bezain pronto irakasleek ongi etorria eman ziguten eta haiekin ibili ginen berban 5 minutu inguru. Kontatu ziguten, egokitzapen-aldia orain dela gutxi igaro zutela eta denbora luzeena ematen zutela lo egiten, askaria jaten eta beharbada jolasten. Gainera, sehaskak, material desberdinak eta bestelakoak erakutsi zizkiguten eta aukera eman ziguten guk eramandako materiala klasetik sakabanatzeko.

Era berean, haurrentzako ezezagunak ginelarik eta guk haiek ez genituenez ezagutzen ezta, irakasleek haien izenak eta nolabaiteko izaera eta jarrerak helarazi zizkiguten. 12 ziren klasean eta haietako bi oraindik egokitzapen-aldian zeuden baina gaurko egunean bakarrik 6 zeuden klasean.

Gaurko egunean beraz, eramandako material guztia klasean zehar sakabanatu genuen eta bertan zegoen materiala bildu genuen. Orokorrean esan dezaket, behaketari dagokionez, eramandako objektu guztiak behatu eta aztertu zituztela begirada hutsez: edalontziak (txikiak, handiak), pilotak (txikiak, handiak, ertainak), oihalak, ukelelea, bongoa, maraka, pandereta, kapelak, arezko botilak...

Egin zuten lehendabiziko gauza izan zen material horiek ikuskatu eta arakatu, haientzat berriak baitziren.

Manipulazioari begira, haur gehienek, aurreko objektu guztiak manipulatuta, ukitu eta hartu zituzten forma ezberdinez: edalontziak (txikiak, handiak), pilotak (txikiak, handiak, ertainak), oihalak, ukelelea, bongoa, maraka, pandereta, kapelak, arezko botilak... Hala ere, zilegi deritzot objektu bakoitzarekin egin zituzten manipulazioak, mugimenduak eta elkarrekintzak islatzea.

Lehenik eta behin pilotekin murgilduz, ikuskatu nuena izan zen, ia guztiek haiek hartu eta ahoan sartzen zituztela; azken batean, haien adinean hartzen dituzten gauza guztiak orain eramaten dute. Hala ere, batzuek pilota haiek hartu eta askatu egiten zituzten lurretik eta hauen atzetik joaten ziren berriro egiteko; alegia, pilota errodatzen zuten. Haien arteko elkarrekintzak ez zituzten egiten; hau da, haien artean pilotak pasa edo bion artean pilotarekin jolasean ibili baina gauza bitxi bat gertatu zena izan zen, batek besteari pilota eskatu ziola eskua luzatuz eta besteak eman ziola.

Edalontziekin burutzen zuten jolas mota antzekoa zen; izan ere, tamaina desberdinetako edalontzi hauek hartu eta ahora eramaten zituzten guztiek. Gainera, edalontziak hartu eta botatzen zituzten eta gogorrenak lurrean kolpatzen zituzten eta bigunenak; alegia, plastikozkoak haien eskuekin suntsitzen zituzten eta ahora eramaten zituzten. Hala ere, batek lortu zuen bi edalontzi hartzea bi eskuekin eta hauek mugitzea eta haien artean talka egitea, soinu bat sortuz.

Bongoarekin, marakekin, ukelelearekin eta panderetarekin, hauek hartu eta askatzen zituzten, inolako jolasik edo musikarik sortu gabe. Aldi berean, hezitzailearen batek haiekin soinua/musika sortzerakoan, haiek instrumentuak erabiltzen/jotzen hasten ziren, haiek musika eratuz, alegia, hezitzaileak imitatzen zituzten. Beraz, batzuek lortu zuten instrumentuak kolpatzea eta jotzea eta musika sortzea. Aipatzekoa da ere, instrumentu guztiekin eta musikarekin erlaxatzen zirela eta gusturago zeudela; izan ere, baten bat negarrez bazegoan hauek entzuterakoan orokorrean lasaitzen ziren. Baita ere, antzeman nuen musikak umeak erakarri eta instrumentuetara hurbiltzea eragiten zuela.

Ildo honetatik, eraman genuen harrizko botilari ez zioten jaramonik egiten baina nik neuk batzuegana hurbiltzean eta hauxe astintzean eta soinua sortzen zela ikustean, erabat gustuko zutela antzeman nuen, eta jarraian beraiek egitera ekin zioten eta atsegin zuten egitea; izan ere, irribarre bat botatzen zuten eta erlaxatzen ziren bai guk egiten bagenuen edota bai haiek egitean.

Oihalak eta kapelak ez ziren izan haien gustukoak; izan ere, ez ziren hauengana hurbiltzen eta guk edo irakasleek haien gainean ipintzen genituenean, momentuan kentzen zuten. Hala ere, ume batek denbora batez egon zen kapelarekin ipinita baina orokorrean ez zuten ezer egiten material hauekin; beharbada hartu eta askatu.

Hauxe ikusita, esan dezakegu objektu ezberdinekin ez zituztela interakziorik egin eta haien artean askoz gutxiago ere. Hala ere, objektuen artean batzuk antzeman genituen eta hauek komentatzea zilegi deritzot:

- Pilota txikia edalontzian sartu du.
- Pilota handia, klasean zegoen kaxa batean sartu du.
- Edalontzi bat beste batean sartu du.
- Pilota edalontzi gainean ipini du.

- Objektu batekin panderoa jo du.
- Ukelelea bongo bat bezala izango balitz bezala erabili du.

Haurrek ia urte bat zutenez ez zuten oraindik komunikazio berbala garatuta, beraz haiekin komunikazioa pixkat zailagoa zen. Batzuek horrelako soinuak egiten zituzten: ta, da, oihuak, soinuak ahoarekin... Honekin batera, aldi horretan hortzak ateratzen ari zitzaizkienez, ia objektu guztiak ahora eramaten zituzten.

Beste alde batetik, haien arteko elkarreraginei erreparatuz, ez dira behatu inolako interakzioak haurren artean, begiradak izan ezik. Ildo honetatik, aipatzea oraindik egokitzapen egoeran daudela eta haientzako guztia berria dela.

Bertan egondako ordu horretan, bakarrik haien ingurune hurbila arakutzen zuten, hau da, eskura edo metro batzuetara zituzten objektuak edo materialak.

Behatutako azken alderdiari erreparatuz, aipatzekoa da negar asko egiten zutela, baina hau ulergarria da, lehen aipatutako egokitzapen faktorea kontuan izanda. Halaber, bat hasten bazen negar besteek negarrari ekiten zioten ere.

#### Bigarren eguna 2022/10/17

Behin klasera sartu ginenean, arnasten zen klima apur bat xaxatua zen, izan ere, haurrak urduri zeuden. Irakasleek esan ziguten astelehenak beti direla egunik gogorrenak, asteburuaren ondoren haurrek berriro asteko errutina hartu behar dutelako eta kosta egiten zaielako, orain dela gutxi egokitzapen aldia igaro baitute eta oraindik ez dira ohitu.

Hala ere, eskolara sartu nintzenean gertatu zen datu bitxi bat izan zen ume bakarra hurbildu zitzaidala eta eskuarekin agurtu ninduela, X, hain zuzen ere. Bestalde, nabarmendu beharra dago sartu berritan haur bakoitza izkina batean zegoela jolasean, lo egiten eta abar. Haien artean inolako hurbilketa edo elkarrekintzarik izan gabe.

Guztira, 6 zeuden ikasgelan, eta lo egiten edo lo egiten saiatzen ez ziren umeengana hurbildu ginen lehenengo, pixkanaka ezagutu gintezen eta gugan konfiantza har zezaten. Ondoren, ikasgelako materiala bildu genuen irakasleen laguntzarekin, eta eraman genuen materiala ateratzen joan ginen.

Hala ere, haurrak iskanbila latza sortzen ari zirela negar egiten eta oihuekin ikusita, kanta batzuk abestera ekin genion, hauek lasaitzeko asmoarekin. Hau ikusita, berriro ere

antzeman genuen musikak asko lasaitzen ziela eta batzuek mugimendu sinpleak egiten zituztela; alegia, besoak mugitu, hankak mugitu... Beste batzuek, berriz, ez zuten inolako mugimendurik egiten.

Haien lasaitasuna une batez bermatuz, orain bai gure materialak ateratzera ekin genion. Pixkanaka atera genuen materiala; haien gustuak eta interesak nolabait ezagutzeko eta beste egun batzuetarako kontuan izateko. Beraz, materialaren jarraipena honelakoa izan zen: lehenik eta behin oihalak, mozorroak, txanoak, telak... Ondoren, era askotako pilotak, pelutxeak eta jostailu txikiak atera genituen eta klasetik sakabanatu genituen, gero tamaina desberdinetako edalontziak eta azkenik musika tresnak: harriz betetako botila bat, ukelele bat, bongo bat eta pandero bat.

Narrazio etnografikoarekin jarraitzeko, zilegi deritzot ume bakoitzaren narrazioa egiteari eta bakoitzak ordu osoan egindakoa eta bereizgarritasunak islatzea. Beraz, esan bezala gaurko egunean hasiera batean 6 haur zeuden: Tokio, Rio, Denver, Oslo, Helsinki eta Maialen. Gero beste haur bat etorri zen, Estokolmo eta azkeneko momentuan egokitzapen aldian dagoen haur bat klasean murgildu zen, Madril.

TOKIO: Haur hau, hasieran aipatu dudan iskanbila sortzen ari zen umeetako bat da. Honek, berriz, besteek ez bezala, negar handia egiten jarraitu egin du, logure zelako; izan ere, gurasoek egunero ohar batean idazten dute haien seme-alaben gosaria, lo egindako ordu kopuruak eta abar. Eta Tokiok ez du lo askorik egin gauean. Horren ondorioz, sehaska batean ipini du irakasleak eta ordu osoa eman du lo eta azkeneko 10 minututan ez du inolako jolasik egin, irakasleak askaria eman diolako.

ESTOKOLMO: Aipatu bezala, Estokolmo berandu etorri da eta bere aitonak ekarri du Haur Eskolara. Berandu etortzearen zergatia, bere aitonak aipatu digu medikua izan duelako izan dela. Ume hau, ni ikustean, harritu egin da eta niregana etorri da katamarkan besarkadak eskatzera eta besoetan har dezadan. Irakasleak hori ikusita aipatu digu, beti horrela dabilela eta norbaiten besoetan egon behar dela denbora luzez nahiz eta pixkanaka hori gainditzen ari den. Bestetik, pilotekin egon da jolasean soilik, hauek ukitzen eta ahora eramaten eta bestelako materiala ez du ezta ikutu ere, nahiz eta guk eta irakasleek hauek hurbildu. Gainontzeko denbora eman du askaria jaten.

RIO: Haur hau gurekin egon da ordu osoa jolasten. Hasieratik oso aktibo egon da klaseko objektuekin jolasten eta gureak atera ditugunean ez dio jolasteari utzi, material berriarekin jarraitu du jolasean. Honek desplazamenduak egin ditu ikasgela osotik katamarkan eta baita ibiltzen ere eta espazio eta material guztiak arakatzen ibili da. Beraz, haur honen bereizgarritasunak hauek izan dira:

- Guri boligrafoa eskatu digu hauxe seinalatzan eta eskua igotzen eta horrekin ibili da jolasean.
- Osloren jolasa ikusi du eta berdina egiten hasi da (imitazioa).
- Pilotak edalontzian sartzen egon da eta baita pilotak eta edalontziak ahora eramaten ere.
- Guk eramandako oihal bat buruan jarri du bera bakarrik, arropa gisa.
- Poltsan geneukan ukelelea ikusi du eta hau hartzen saiatzen egon da; beharbada, pasaden egunaz oroitzen da.
- Irakasleak guk eramandako txano bat buruan jarri dio eta bera bakarrik kendu eta berriro jarri du.
- Motxilan nituen orriak hartzen ibili da eta motxila ixtean hau irekitzen ibili da.

DENVER: Oso pertsona lasaia eta alaia da. Guregana etorri da hasieran baina guk begiratzen diogunean urduritzen da eta irribarre bat botatzen du. Ondoren, aharrausika zebilelarik sehaska batean lo egin du denbora luzez. Esnatzean, berriro ere guregana etortzen zen baina ez zuen jolasten, nahiz eta guk saiatu. Bakarrik ibili da pilotekin eta oihalekin zertxobait.

OSLO: Gu sartu bezain pronto guregana etorri da eta guri besardakak eskatzen eta besoetan har dezagun egon da denbora luzez. Oso pertsona aktiboa eta maitagarria da eta kuxkuxeroa ere. Izan ere, denbora luzez egon da nire estuxea irekitzen eta boligrafoak ateratzen eta poltsan geneukan materiala ikuskatzen eta ateratzen saiatzen. Honek ez du apenas desplazamendurik egin klasean zehar eta egiten zituenean gu jarraitzeko izaten zen; izan ere, gurekin eman du ordu osoa. Haur honen berizgarritasunak hauek izan dira:

- Zutik mantentzen da baina ez daki ibiltzen.
- Edalontziak bata bestaren gainean ipintzen egon da (eraikuntza).
- Nik eramandako kapela buruan jarri du eta niri eman dit jartzeko asmoz.
- Musikarekin mugimenduak egin ditu eskuak, besoak eta burua mugitzen.

- Berak musika sortu du ukelelearekin, marakekin eta bonboarekin eta asko gustatu zaio.
- Gu irtetean negar egin du eta gurekin etorri nahi zen.

HELSINKI: Haur honek ordu osoa eman du izkin batean eserita; izan ere, ez daki ez ibiltzen ez katamarkan. Hala ere, lehenengo egunean bakarrik sehaskan egon nahi zuen eta gaur lurrean esertzen zen lasai askoz. Bakarrik egon da denbora guztian, pairatzen duen intseguritatea dela eta, irakasleak aipatu digun eran eta ez du inolako jolasik egin ezta materialarik hartu, soilik guk hurbildutako pilota bat.

BERLIN: Denbora gehiena eman du lo baina esnatzean jolastu egin du zertxobait. Pilotekin aritu da hauek botatzen eta haiengana joaten katamarkan eta baita ukelelearekin ibili da ere, baina musika sortu gabe. Ume honek espazio handia behar du lasai egoteko eta ez du gustuko inork hurbiltzea, ezta besteekin komunikatzea edo jolastea ere.

MADRIL: Egokitzapen aldian dago eta azkeneko 10 minutuak egon da bakarrik. Ibiltzen daki nahiz eta 7 hilabete izan eta pilotekin jolasten aritu da.

#### Hirugarren eguna 2022/10/24

Hirugarren egun honetan, nire klasekidea eta biok klasean sartu bezain pronto, aurpegi berriren bat ikusi genuen. Gainera hezitzaileek aipatu ziguten gaur oso lasai zeudela eta horrek harrizetik hartu ninduen; izan ere, aurreko saioak pixkat mugituak izan ziren.

Azpimarratzekoa da ere, umeentzat iada ez ginela ezezagunak, guregana etortzen baitziren eta haien begiradak eta keinuak horixe adierazten zutelako eta bereizgarritasun bat izan zen, Denver, Paris, Rio eta Lisboa elkarrekin zeudela jolasten; haien artean elkarrekintzik sortu gabe baina ez zegoen bakoitza izkin batean.

Beraz, aurreko egunetan bezala, 5 minutu utzi genizkien haiek, ikasgelako materiala arakatu ditzaten eta haiekin jolastu zezaten eta guk bitartean hezitzaileekin egon ginen hizketan; ikasleen inguruan. Gero, bertako materiala bildu eta gure materiala atera genuen baina gaurko egunean, txoko desberdinetan jarri genituen.

Gaur, ikasgelan Denver, Paris, Rio, Lisboa, Berlin, Estokolmo, Helsinki, Niher eta Madrill zeuden eta bakoitzaren narrazio etnografikoari egitera ekingo diot:

RIO: Aurreko egunetan bezala, oso dinamiko ibili da ordu osoan. Hasiara batetik, kutxa desberdinak jarri genituen txokora hurbildu zen eta interakzio txikiak burutu zituen

Denverrekin; alegia, kutxa eman, eskatu... Gainera, guri pilotak eskatu digu besoa altxatuz eta jarraian joan da pilotak kutxara sartzera eta behin eta berriz hori errepikatu du eta baita gurekin ere; hau da, guri ematen. Edalontziekin gauza bera egin du, pilotak bertan sartzen eta eraikuntza txikiak egin ditu bata bestearen gainen ipiniz. Beste datu esanguratsu bat izan da, kotxe bat hartu duela eta kotxe baten soinua irudikatu duela. Bestetik, aurreko egunetan bezala, gure poltsara hurbildu da eta koadernoko orriak zimurtu egin ditu eta bertan genituen pilota gehiago hartu eta hauekin jolasean ibili da. Jolasean jarraitu egin du denbora luzez, ikasgela osotik zehar eta espazio guztiak arakatzuz eta gero gauzak lapurtzera abiatu da, izan ere, Denverri berak zuen botila bat lapurtu dio eta gero Helsinki eta Tokiori txupeteak lapurtu dizkie. Imitazioa ere egin du; azken batean, Denver egiten ari zen gauza bera egiten saiatu da, tapoia botilan sartzen. Azkenik, gose zela bide, irakasleak askaria eman dio eta behin bukatuta jateko txokoan sartzen saiatu da gose jarraitzen zela aldarrikatuz, halako soinuak egiten: “mmm”

DENVER: Denverrek ikusten gaituen aldiro, irribarre bat botatzen digu eta guregana etortzen da. Hasieran, eraikuntzak egiten ibili da ikasgelako pieza batzuekin, baina pilotak atera ditugunean haiengana joan da katamarkan eta hauekin ibili da jolasean. Denver gainera, musikazalea da aurreko egunetan ikusi dugun gisan, beraz instrumentuak txoko batean jarri ditugun heinean, Denver haiengana abiatu da eta marakak eta bongoa hartu eta musika sortu du. Lehenengo instrumentu honekin, denbora luzez egon da eta gu begiratzen gintuen guk berak egiten zuena ikus genezan. Beste instrumentuekin ere ibili da jolasean eta beste material batzuekin ere; adibidez, botila eta tapoiarekin; izan ere, tapoia bertan saiatzen sartzen ibili da eta Riok hau ikustean gauza bera egin du. Denver, behin eta berriz zutitzen saiatzen da baina ez du azkenean lortzen, baina gero eta gehiago saiatzen da; izan ere, konfiantza gehiago du. Azkenik, Denverrek Riok bezala, gauzak lapurtu dizkio Parisi.

PARIS: Parisek ez da ordu osoa egon jolasten baina gauza interesgarri batzuk egin ditu aipatu beharrekoak.

- Eskularrua hartu du eta ia eskuan sartu du.
- Jantoki txokora hurbildu da, gose zelako.
- Kotxearekin jolasean ibili da.
- Panderoa hartu eta musika egin du.
- Orriak hartu, zimurtu eta eraman egin ditu.

- Ukelelea eta marakak hartu eta haiekin jolastu du.
- Pilotak eskatu dizkit besoa altxatuz eta hauek seinalatuz.

ESTOKOLMO: Berandu etorri da eta sartu bezain pronto negar egin du bere aitona ikasgelatik joaten zelako baina irakasleak eta guk kantatu dugu eta erlaxatu da. Ondoren, askaria jan du eta behin bukatuta sehaskan ibili da lotan denbora osoa.

HELSINKI: Hasieran sehaskan ibili da eta gero irakasleak guztiekin eraman du eta bertan egon da baina inolako jolasik egin gabe. Logure zela ikusita, sehaskara eraman dugu berriro eta bertan ez du lorik hartu eta ukelelea hurbildu diogu eta honekin jolasean ibili da denbora luzez.

TOKIO: Denbora guztia lo egiten eman du.

LISBOA: Lisboa berria zen guretzat eta nahiko aktibo ibili dela esan dezakegu. Hasiera batetik, agurtu digu eskuarekin eta oihalak hartu eta hauek arakutzen egon da eta bere gainean jarri egin ditu. Ondoren, pilotak hurbildu dizkiogu eta hauek edalontzietan sartzen ibili da eta uneoro errepikatu egin du gustatu zaiolako. Saioaren erdialdean, erori egin da eta mina hartu du buruan eta negar egin du baina besoetan hartu eta asko lasaitu egin da. Bestetik, oso interesgarria izan da Riok ukelelea jotzen ari zuen bitartean, Lisboa txaloka ibili dela eta imitazioa ere egin du; izan ere, Parisen jolasa ikusi eta gauza berari ekin dio.

MADRIL: Madril oraindik egokitzapenean dago eta asko kostatzen zaio besteekin egotea. Uneoro bakarrik dago eta ia klase osoa eman du guri begiratzen. Azkeneko 20 minutuak lo egiten igaro ditu.

BERLIN: Bakarrik egon da izkin batean eta ez da mugitu. Aurreko saioetan bezala, materialak hurbiltzen genizkion eta batzuetan hauekin jolasten zuen baina gehienetan ez.

### Laugarren eguna 2022/11/03

Gaurko eguna pixkat berezia izan da. Lehenik eta behin aipatzea, aurreko saioak astelehenetan burutu ditugula eta gaurkoa osteguna izan dela eta txorakeria irudi arren, aipatu dezaket aldaketa handia nabari dudala; izan ere, astelehenetan urduriagoak daude eta denbora luzez igarotzen dute negarrez, apenas mugimendurik gabe eta jolasik gabe, asteburu luze baten ondoren ikasgelara bueltatzen direlako eta oraindik horretara egokitzen



dabiltzalako. Gaur, berriz, osteguna izanda nahiko lasai zeuden eta parte-hartze gehiago izan dute.

Gainera, gaurko eguna berezia izan da dinamika berri bat planteatu dugulako hezitzaileek eta guk. Udazkenaren txokoa sortu dugu eta hostoak, gaztainak, pinaburuak, makilak... eraman ditugu eta lurrean ipini ditugu haiek hauekin jolas ditzaten. Beraz, saio honetan ez dugu aurreko saioetan bezala gure materialak eta objektuak atera, udazkenari eman diogulako garrantzia.

Ez hori bakarrik; izan ere, klasera sartu bezain pronto kide berri baten presentzia antzeman dugu; baina ez ikaslea, irakaslea baizik. Neska bat praktiketan zebilen eta bertan bildu gara 5 irakasle 12 hurreko ikasgela baterako. Gainera, gaurko egunean 8 zeuden: Oslo, Budapest, Lisboa, Berna, Tokio, Paris, Madril eta Estokolmo. Beraz ohikoa den bezala, bakoitzaren narrazio etnografikoa egiteari ekingo diot.

OSLO: Oslo, aurreko saioetan antzeman dugun eran, oso pertsona kuskuseroa eta aktiboa da eta gaur ibilbide berean jarraitu du. Hasiera batetik, material berria eskaini diegunean, gaztainak hartu eta kutxan sartzan eta amaitzen zuenean hauek kutxatik ateratzen ibili da. Baita ere, denbora luzez egon da gaztainak ahora eramaten; izan ere, ikusten duen guztia ahora eramaten du. Pinaburuarekin eta hostoekin ibili da jolasten ere; alegia, hauek arakatzen eta zimurtzen eta logure zela antzematurik, irakasleak sehaska batean jarri du lo egiteko. Hasieran negar egiten egon da eta besoak luzatzen zizkigun guk besoetan hartzeko asmoz, baina azkenean lo geratu da eta horrela jarraitu du.

BUDAPEST: Budapest hasiera batetik katamarkan ibili da klasetik zehar, material berria ikusten eta arakatzen. Gainera momentu batzuetan zutik mantendu da eta pauso batzuk ematen saiatu da baina kosta egiten zitzaion, prozesu horretan baitago. Budapestek egin dituen gauza interesgarriei begira, lehenik eta behin izan daiteke besoa luzatu didala eta berak zuen gaztaina eman didala, elkarrekin jolasteko asmoz eta gauza bera egin du geroago, pinaburuarekin. Bestetik, hostoak zeuden kutxa irauli egin du eta hosto guztiak jaustean, sorpresa aurpegia jarri eta berriro egiteari ekin dio. Gaztainak kutxan sartzan ere ibili da eta gero sehaskan lo geratu egin da.

LISBOA: Hasieran irakaslearekin egon da; izan ere, ez zuen jolas egin nahi; gero, pixkanaka denok geunden lekura hurbiltzen joan da eta jolasteari ekin dio. Honek denbora luzea eman du gaztainak ahora eramaten eta bestelako materiala arakatzen. Ekintza interesgarri bat izan da berak hosto bat hartu eta buruan jarri duela kapela gisa eta gauza bera egin du Budapesten buruan; alegia, hostoa bere buruan jarri du. Bestetik, Lisboak kutxan zeuden gaztaina guztiak atera zituen; nahiz eta hostoak eta pinaburuak egon eta

horrek harritu ninduen; izan ere, nolabaiteko hautaketa egin zuen. Gainera, gero gauza bera egin zuen aldrebes. Lisboa izan zen udazkena txokoan jarraitzen zuen azkena eta hori ikusita guregana hurbildu zen eta gurekin jolastu zuen; izan ere, guk egindako imitazioa burutu zuen, edalontzi batzuk hartu genituelako eta batzuetan gaztainak sartu genituelako eta beste batzuetan ez eta berak gauza bera egin zuen. Azkenik, xafla batean igo eta han ibili zen Estokolmo eta Tokiorekin eta jasotzen lagundu zigun; materialak kuxetan sartuz.

BERNA: Berna hasieran, oso urduri zegoen eta negar egin du denbora luzez lasaitu den arte. Horregatik, hasieran irakaslearen hanketan egon da eserita, jolastu gabe eta beste haurrengana hurbildu gabe. Hala ere, gutxi iraun dio urduritasun hori eta abiatu da jolastera eta egin duen lehenengo gauza izan da katamarkan maldatik igo eta jaitsi behin eta berriro, txirrista bat balitz bezala. Berna, gainera, katamarkan dabilenean ez du inolako laguntasunik besteei dagokienez eta haien gainean dihoa inor egongo ez balitz bezala. Askorekin hori egin du eta Parisek pasatzen ez uztean, haserretu egin da. Xaflan baita igo da ere eta bertan zutitzen saiatzen egon da baina ezinean, aspertu da eta guregana etorri da eta arkatza hartu digu eta koaderno marrazten hasi da, gure laguntzarekin. Gustuko zuela ikusita, horrela jarraitu du denbora luzez eta gero arkatza ematen zigun eta guk idatzi bitartean berak gu ikuskatzen gintuen. Gero, arkatza berriro ere lapurtu egin digu eta soinua egin du lurrean kolpeak emanaz eta berak bakarrik estutxean ipini du arkatza eta besteengana hurbildu da. Bertan zegoelarik, material desberdinak hartu eta kutxan bildu ditu baina berriro ere guregana etorri da eta arkatza hartu eta hau botatzen hasi da. Une batean, sehaska handi baten azpian amaitu da arkatza eta honen azpitik abiatu da eta hartu egin du. Arestian, erdialdean geratzen zen eta negar egiten zuen ezin zelako atera baina oraingo honetan lortu egin du. Azkenean, jasotzen lagundu digu.

TOKIO: Hasieran, irakaslearengandik ez zen banatzen baina pixkanaka udazken txoko honetan murgiltzen joan zen. Bertatik ibili zen katamarkan, objektu guztiak ikusten eta arakatzen, baina arreta berezi bai eskaini zien hostoei, hauek zimurtzen, ahora eramaten eta kutxan sartzen ibili baitzen denbora luzez. Gustuko zuen eramandako guztia; izan ere, denbora guztian irribarretsu zegoen eta bere ekintzetan pasmatzen zuen bere ongizatea. Hala ere, jauzi zen eta negar hasi zen baina irakasleak abestu eta lasaitu egin zen. Ondoren, gose zelarik jantoki txokora hurbildu zen eta buruarekin Estokolmo bazterten zuen nolabait helaraziz berak jango zuela hurrengo eta ez Estokolmok. Azkenean, Lisboa eta Tokiorekin xaflan igo zen eta bertan zutitzen saiatzen zen eta gutxi gorabehera lortzen zuen.

PARIS: Paris gaur, aurreko egunetan ez bezala, lasaiago egon zen eta horrek ahalbideratu zion jolastea eta beste haurrekin egotea. Honen inguruan, datu hauek izan ziren esanguratsuenak:

- Gaztainerekin jolastu zuen, hauek botatzen eta haiengana joaten.
- Hostoak ahora eramaten zituen uneoro.
- Hostoak zimurtu eta ahora eraman ditu berriz ere.
- Maldatik igotzen saiatu zen eta erori zen; hala ere, berriro saiatu zen eta lortu egin zuen.
- Ispilura hurbildu zen eta bertan denbora luzez egon zen bere proiektzioa ikusten eta barre egiten.

Azkenean, logure zelarik, sehaska batean lokartu genuen.

MADRIL: Hasiara batetik negar zebilen eta sehaska batean lo eman zuen ia ordu osoa. Geroago, ikasgelatik zehar egon da ibiltzen espazio guztiak arakatzen eta material guztia ikuskatzen.

ESTOKOLMO: Estokolmo hasiera batetik klasetik zehar egon da katamarkan eta soinua egiten pinaburua xafla batean kolpatuz. Ibilbide hauetan, noizean behin saiutzen zen zutitzen eta lortzen zuen aldiro aurpegia aldatzen zion; izan ere, oso pozik geratzen zen, asebate. Besteak bezala, gainera, pinaburuak ahora eramaten zituen eta hostoak zimurtzen zituen baina gauza bereziak baita egin zituen ere; izan ere, gaztaina bat entxufean konektatzen saiatu zen eta pinaburua pilota bezala erabili zuen jolasteko. Gainera kolpe bat hartu zuen eta negar egin zuen baina laister joan zitzaion kasketaldia eta gose zela, jantoki txokora hurbildu zen eta gose zela aldarrikatu zuen gorputz hizkuntzarekin. Tokiori pilota bat lapurtu zion eta hau haserretu egin zen berarekin; nahiz eta Estokolmok ez egin jaramonik. Azkenean, Lisboa eta Tokiorekin xafla gainean igo zen eta honek ere jasotzen lagundu zigun.

#### Bosgarren eguna 2022/11/04

Joan den egunean egin zen saio desberdinaren ondoren, gaur betiko dinamikara itzuli ginen, hau da, gainerako saioetan eraman ditugun ohiko materialak eraman genituen, baina ñabardura desberdin bat sartu genuen, ikasgelako materiala jaso beharrean material

hori utzi eta gurearekin elkartu genuen, dinamika desberdin samarra izan zedin eta jolas desberdinak eta abar nola egiten zituzten ikusteko.

Bestalde, aipatu behar da hilabete bat daramagula haurrak ezagutzen, haien jolasak, mugimenduak, ekintzak... eta honen harira, esan dezaket saio bakoitzari behaketa zabala egin ondoren, pixkanaka gero eta gehiago integratzen direla gelako klimara eta gero eta protagonismo handiagoa hartzen dutela; alegia, gero eta parte-hartze aktiboago bat dute. Saio honetan, adibidez, une batean haur guztiak batera jolasten ari ziren, eta orain arte hori ez zen inoiz gertatu. Normalean 3 dira beti jolasten direnak eta beste batzuk noizean behin, baina, esan dudanez bezala, gero eta gehiago integratzen dira haurrak. Hala ere, haurrak direnez, laster aspertu egiten dira, eta bakoitza bere aldetik joaten da, edo, logura dagoenez, lotara eramaten dugu, eta, horren ondorioz, saioak 3 hurrekin amaitzen ditugu, jolasean, eta hori gertatu zen honetan ere.

Baina, oro har, saio horien garapenaren ondoren ikusi ahal izan dudanez, asko aurreratu dute, espero nuena baino gehiago, eta pixkanaka hobera egiten dute bai sozializazioan, bai mugimenduetan, bai gorputz-adierazpenean, bai ahozko hitzetan, bai ibileran...

Gaurko klasean 8 dira klasera joan direnak: Oslo, Madril, Lisboa, Budapest, Tokio, Berna, Paris eta Estokolmo.

OSLO: Oslori dagokionez, bere lerroan jarraitzen duela esan daiteke, ez du gorabeherarik. Jolasean aritzen da beti, espazio eta material desberdinei begira, leku batetik bestera mugitzen... Eta gainerako saioetan ikusi dudanez, Oslori musika tresnak gustatzen zaizkio, eta gaurko saioan hau bermatu ahal izan dut, denbora gehiena beraiekin jolasean eman baitu. Hasiera-hasieratik ukelelearekin egon da, ukelelea jo du eta kolpeak eman ditu lurrean. Ondoren, bongora pasa da eta musika sortzeko erabili du, eta behin nekatuta, Lisboari utzi dio, aurretik lapurtzen saiatu baitzen. Marakekin ere jolastu izan da, eta irribarre bat ateratzen zitzaion soinua sortzen zuen bakoitzean. Azpimarratu behar da beste material batzuekin ere jolastu duela, autoekin adibidez, autoak poliki eta azkar mugituz. Azkenik, aurreko saioetan bezala, behin aspertu denean gelako puntu guztiei begira egon da, katamarkan eta noizean behin pauso txikiak emanez, eta azkenean sehaska batean lo amaitu du.

MADRIL: Madrilen egoera berezia da, denen artean gazteena baita, eta horregatik guztien artean gutxien integratuta dagoena da integrazio-aldian baitago oraindik. Hala ere, sehaskan lasai egon da bere lagunei begira eta pilota batekin jolasten, eta arreta deitu didan

zerbait izan da une batez botila batetik ura edaten ari zela nire laguntzarekin eta gero Oslori ura eskaini diola botila hurbilduz.

LISBOA: Lisboa baztertuta egon da denbora guztian, pilotekin, hauek botatzen, edalontzietan sartzen eta abar. Gero, bere lagunak eta materiala zeuden tokira hurbildu da, eta Oslorekin joan da, eta biak batera aritu dira ukelelearekin jolasean, soinurik sortu gabe, kolpeak emanez lurrera eta kolpeak emanez eskuekin. Gero, berak bakarrik hartu du eta pilota ukelelera jaurtitzen aritu da eta gauza bera egin du panderoarekin. Oihal desberdinekin ere egon da eta baten azpian sartu da, eta maindire bat izango balitz bezala erabili du eta irtetean gustatu egin zaiola ikusi dut. Hori ikusita, harengana hurbildu eta oihal batez estali dut osorik, eta berak kendu besterik ez du egin, eta ez da beldurtu, aitzitik, gustatu egin zaio. Azkenean Budapestekin jokatu du pilotarekin.

BUDAPEST: Budapest klasearen hasieran, pixka bat desorekatuta zegoen, eta denbora luzea eman du inorengana hurbildu gabe eta ezertan jolastu gabe. Hori ikusita, pilotak hurbildu dizkiot eta haiekin jolasean aritu da, eta edalontziak ikustean, pilotak haien barruan sartzeko hurbildu da. Panderoarekin eta marakekin ere jolastu du, soinua sortuz eta eskuekin joz, eta katamarka zebilela, konturatu gabe Tokioren gainetik pasatu da eta Tokio negarrez hasi dela ikustean aurpegia aldatu zaio Budapesti eta baliteke gaizki sentitu izana horregatik. Xaflara igo da, eta zutik jartzen saiatu da, berari helduta, eta, azkenean, Lisboari pilota lapurtu dio, baina elkarrekin jokatzeko amaitu dute, lehen esan dudak bezala.

TOKIO: Tokio hasieran irakaslearen hanketan egon da eta gero pixka bat jolastera animatu da. Pilotekin aritu da jolasean, hauek botatzen, biltzen, ahora eramaten, kutxa batean uzten... Eta gero denbora dezente eman du panderoarekin jolasten, eta soinua sortzen zuenean, txaloka hasten zen. Aitzitik, nekaturia eta logalea zegoenez, lotan eman du falta zen denbora guztia.

BERNA: Berna hasiera-hasieratik etorri da guregana, eta berriro eskatu digu arkatza. Berriz ere, gure laguntzarekin, koadernoak marrazten hasi da eta denbora luzea eman du gurekin. Gero, ikaskideekin joan da eta horiei gauzak lapurtzen aritu da, maraka kendu baitio Parisi, pilotak Budapesti, ukelelea Lisboari... Dena berarentzat nahi zuen. Denbora luzea eman du gela osoan zehar katamarkan, ikaskideek zer egiten duten ikusten, eta noizean behin hortzek eragindako minagatik oiher egiten, eta, azkenean, nirekin amaitu du, pilotarekin jolasean, paseak egiten.

PARIS: Paris oso aktibo ibili da hasieran, ikasgela osotik zehar mugitu da, bazter guztiak behatu ditu, pilotekin jolasean aritu da, instrumentuekin... Baina denborak aurrera egin ahala, itzali egin da, eta etengabe hasi da negarrez, oheratu dugun arte.

ESTOKOLMO: Estokolmo berandu etorri da klasera eta zuzenean joan da ukelelearen bila. Aitonak, izan dela ekarri duen pertsona, itxaron egin dio, eta bilobak ukelelearekin musika nola sortzen zuen ikusi du, eta Estokolmori irribarreak ihes egiten zitzaizkion. Ondoren, objektuak zeuden tokira katamarkan joan da, eta material guztiekin jolasean aritu da, ahora eramanez edo botaz, eta nabarmendu behar da era berean, une batez zutitu eta zutik mantendu zela, lehen ezin zuen bezala.

### Seigarren eguna 2022/11/07

Hau seigarren saioa zen eta horrek esan nahi du azkena izan zela. Saio honek, aurrekoen ildo bera jarraitu zuen, hau da, lehen eramaten ari ginen materiala eta objektuak gelan sakabanututa utzi ditugu, inolako multzo logikorik gabe, hau da, material guztia sakabanututa utzi dugu haiek nahi zuten materiala aukera zezaten.

Hilabete bat baino gehiago igaro da esperientzia honekin hasi ginenetik, eta azpimarratzekoa da aldaketak izugarriak izan direla eta emaitza, balorazio eta ondorio asko aterata ahal izan ditugula. Haurrak pixkanaka aurrera doaz alderdi guztietan, eta ez du zerikusirik saio hau lehenengoarekin alderatzen badugu. Badirudi haur ezberdinez ari garela.

Gaur etorri diren haurrak hauek izan dira: Paris, Madril, Budapest, Denver, Berna, Lisboa, Oslo, Helsinki, Tokio eta Estokolmo. Oro har, saioa oso dinamikoa izan da, denek jokatu baitute modu batera edo bestera, eta denbora dezente eman baitute denek elkarrekin, lehen ez bezala. Hala eta guztiz ere, hasieran oso nahasiak eta urduri zeudela ere esan behar dut, beste batzuetan esan dudana bezala, astelehenak beti izaten baitira oso gogorak haientzat.

Bestalde, esan nahi nuke umeei agur esan geniola eta pena handia eman zigula, esperientzia paregabea eta errepika-ezina izan baita niretzat.

Jarraian, ikasle bakoitzak egin zituen bitxikeriak edo gauza interesgarriak jarraian egongo dira:

PARIS:

- Negar egin du denbora luzez.
- Ispilura hurbildu da eta kolpeak eman dizkio ispiluari.
- Lo egon da denbora gehiena.

#### BERNA:

- Guregana etorri eta arkatza eskatu eta koadernoan marrak egin ditu.
- Hartzen duen guztia bota eta irribarre egiten du.
- Irakasleak kantatu bitartean txaloak egin ditu.
- Ukelelea hartu eta kolpeak eman dizkio lurrera.
- Ukelelea jo du.
- Kotxeak niri pasatu dizkit eta berarekin jolastu dut.
- Botila bat hartu bota du eta oihukatu du: "agua".
- Kotxea maldan gora bidali du eta itxaron egin du nola jaisten zen eta behin eta berriro egin du.

#### BUDAPEST:

- Zutik mantendu da laguntzarekin.
- Ukelelearengana joan eta Bernarekin instrumentua jo du.
- Pilotak bota eta haiengana joan da.
- Edalontzia hartu du.
- Oihalak arakatu ditu eta hauen azpian ibili da arrastraka.
- Estokolmorekin xaflara igo da.
- Ukelelea jo du.

#### DENVER:

- Sehaskan denbora luzez ibili da dena ikuskatzen.
- Denverrek txaloak egin ditu, Budapestek ukelelea jotzen zuen bitartean.
- Sehaskatik atera da eta ukelelea jo du.

- Zutik mantendu da segundutxo batzuk eta behin eta berriro saiatu da gero eta gehiago mantentzen.

#### MADRIL:

- Niregana etortzea kostatzen zaio.
- Klasetik zehar egoten da arrastraka.
- Euli bat agertu eta haren atzetik joan egin da.
- Negar hasi da eta "papa" esan du.
- Lo geratu da.

#### LISBOA:

- Pilotak edalontzian sartu ditu.
- Panderoa jo du.
- Lo geratu da.

#### OSLO:

- Irakaslearen hanketan denbora luzez egon da.
- Marakak hartu eta soinua egin du.
- Eskularrua oinan jarri du.
- Zutik mantendu da eta gero eta pauso gehiago ematen ditu.
- Eraikuntzak egin ditu Lisboarekin.

#### HELSINKI:

- Hartzen duen guztia ahora eramaten du.
- Ondo dago lurrean eserita, lehen ez.



- Denbora guztian espazio batean egon da, ez baitaki ibiltzen ezta katamarka ere.

#### TOKIO:

- Irakaslearekin zegoen eta Oslo etortzean jeloskor jarri da.
- Sehaskan zegoen eta Budapestek molestatu dio eta haserretu egin zen.
- Lo geratu da denbora luzez.

#### ESTOKOLMO:

- Berandu etorri da.
- Klasetik katamarkan ibili da pilotarekin.
- Ukelelea jo du.

## 10.1.2 SAN IGNACIO IKASTETXEA

### Lehenengo eguna 2023/03/13

Eskola honetan, ikerketaren lehen eguna zen eta hasiera batean ikasleak ezagutu nituen eta ikasgela horretako tutorearekin hitz egin nuen. Diagnostiko labur bat egin zidan klaseko dinamikaren inguruan eta helarazi zidan oso ikasle lasaiak eta maitekorrak zirela, eta seguru aski emaitza onak aterako nituzkeela haiengandik.

Gaurko egunean beraz, eraman nuen material guztia klasean zehar sakabanatu nuen eta bertan zegoen materiala bildu nuen. Orokorrean esan dezaket, behaketari dagokionez, eramandako objektu guztiak behatu eta aztertu zituztela begirada hutsez: edalontziak (txikiak, handiak), pilotak (txikiak, handiak, ertainak), ukelelea, bongoa, maraka, pandereta, kapelak, arezko botilak... Eta ziztu bizian joan egin ziren jolastera; izan ere, haientzat material berriak ziren eta hauek erabiltzeko irrikitan zeuden.

Egun honetan, klasera etorri ziren ikasleak hauek izan ziren: Espainia, Frantzia, Portugal, Alemania, Italia, Norvegia eta Finlandia.

Orokorrean, oso ondo eta gustura ibili ziren nik eramandako materialekin jolasten. Haiantzat ikasgela batean material horiek izatea berria zen, baina nabari zen etxean material horiek zituztela; izan ere, lehenik eta behin material horiek arakatu zituzten eta hauek behatu zituzten eta ziztu bizian jolas desberdinak burutu zituzten. Bestetik ere aipatzea, oro har, haserretzen direla material guztia beraiantzat nahi dutelako; azken finean, egozentrismoaren etapan daude eta dena haiantzat nahi dute. Hala ere, gauzak ere uzten diote elkarri eta behin baino gehiagotan eskerrak eman dute. Guztion artean ere jolasean ibili dira, batzuk mahaiaren alde batean eta beste batzuk beste aldean egonda eta pilota elkarri pasatzen. Gainera, orokorrean espazio guztietatik ibili dira jolasean, uneoro gelditu gabe eta desplazamendu horiek ibiltzen burutzen zituzten.

Bakoitzaren analisisa:

ITALIA:

- Pilota edalontzian sartu egin du eta edalontzitik pilota jaurtitzen ibili da eta berriro ere edalontziarekin hartzen.
- Portugalekin ibili da pilota pasatzen eskuarekin eta hankarekin eta eskuarekin hartzen zutenean, pozten ziren eta "UAU" esaten zuten.
- Italiak Portugalekin elkar truke bat egin du: honek pilota eman dio eta Portugalek kotxea.
- Denbora luzeena ibili da material askorekin; alegia, pilotak, kotxeak... Baina hauekin jolastu gabe, eta besteak etortzen zirenean material horiek nahi zituztelako haserretu egiten zen.

ESPAINIA:

- Espainia, Portugal eta Frantzia pilotari ostikadak ematen ibili dira eta atletik sartzen zutenean GOL esaten zuten. Hala ere, laster aspertu da eta pilota hartu eta eskuarekin heldu du jolastu gabe eta besteei utzi gabe.
- Denbora luze ibili da ikasgelatik bueltak ematen jolastu gabe.
- Espainia niregana askotan hurbildu da nirekin hitz egiteko; izan ere, hitz egiteko gaitasun nahikoa zuen eta nahiago izan du nirekin egotea eta ni ezagutzea, jolastea

baino. Halako galderak egiten zizkidan: “Como te llamas? Vives en Vitoria? Te gustan los coches?...”.

- Musika tresnek ere bere arreta deitu diote eta egon da hauekin musika sortzen.

Gainera esan dit, musika entzutea gustatzen zitzaiola.

#### FRANTZIA:

- Pilota pasatzen du edalontzi batetik bestera.
- Ume honen kasuan egozentrismoa asko gailentzen da: dena berarentzat nahi du eta besteek zerbait eskatzen ziotenean ez zien ematen eta aurpegi txarra jartzen zien.
- Tapoia botilan ondo jarri du eta niri erakutsi dit hauxe esanez: “mira”.
- Tapoia pilotaren gainean jarri du eta pilota ez erortzen saiatu da.

#### ALEMANIA:

- Kapela jartzen du buruan bera bakarrik eta “Moha” esaten du. Irakaslearekin hitz eginda, Moha bere anaia zela jakin izan dut.
- Kapelaz aldatzen da eta atzerantz jartzen du.
- Panderetarekin musika sortzen du uneoro eta dantzan hasten da.
- Zapia hartu eta irakasle eta bioi erakutsi digu, guk buruan jartzeko asmoz; izan ere, hizkuntza ez-berbalarekin helarazi digu.
- Italiari kapela buruan jarri dio eta barrez hasi da.
- Alemaniak eta Portugalek jolastu dute elkarrekin panderetarekin, txandak errespetatuz.

#### PORTUGAL:

- Marakarekin musika sortu du eskuarekin kolpeak emanez.

- Portugal eta Italia belauniko jarri dira eta elkarri pilota pasatzen egon dira. Pilota ez zutenean hartzen eta harengana joan behar zirenean katamarka joaten ziren, ibili ordez
- Italiarekin aldatu du kotxea jostailuzko monopatinarekin.
- Ukelelea jotzen aritu da zenbaitetan eta besteengana hurbiltzen zen eta zera esaten zien: "Musika".
- Seriazio bat sortu du kotxeekin eta patinekin.
- Italiak kotxea lapurtu dio eta niregana etorri da negarrez eta oso haserre eta hasi da kotxea seinalatzen eta esaten "coche mio".

#### NORVEGIA:

- Ukelelearekin musika sortu du eta Alemaniari esaten dio berarekin etortzeko ukelelea biek jotzeko.
- Hartu du kotxea eta airetik ibili da honekin zera esaten: "coche volador".
- Besteei azaldu die kotxe bat arrastatzen baduzu atzerantz eta uzten baduzu, zuzen doala segundutxo batzuk.
- Pilotarekin ostikadak gorantz ematen ibili da eta bi ematen zituenean oihuka hasten zen esaten zuen: "dos".

#### FINLANDIA:

- Italiak pilota eskatu dio eta honek eman dio lasai askoz.
- Pilotari boteak ematen hasi da esku batekin eta gero saiatu da beste eskuarekin.
- Uneoro besteei zerbait lapurtu nahian egoten zen.
- Hitzak errepikatu uneoro: kotxea, pilota.
- Askotan, eraikuntzak egin ditu edalontziekin.

### Bigarren eguna 2023/03/14

Gaur, umeez ezagutzen ninduten eta atea zabaldu bezain pronto niregana etorri dira besarkadak ematera. Gaurko dinamika pixkat desberdina izan zen; azken batean, materiala txokoka antolatu nuen eta esan nien materiala ezin zutela eraman ikasgelatik zehar, material horrekin jolastu nahi bazuten txoko horretan egon behar zirela.

Gaurko egunean bi ikasle berri ezagutu nituen: Holanda eta Estonia. Beraz, gaurko egunean aurreko eguneko guztiek eta bi ikasle hauek burutu zuten saioa.

Orokorrean, gaur ere oso gustura egon ziren eta gero eta elkarrekintza gehiago joan nintzen ikusten haien artean. Baita ere aipatzea, txokoek nahiko ondo funtzionatu zutela eta askotan materialak haien lekuan uzten zituzten eta ez zituzten eramaten ikasgelako beste txoko batera, nahiz eta orokorrean ez egin, azken finean, txikiak dira eta ahazten zitzairen.

Bakoitzaren analisia:

#### NORVEGIA:

- Kotxea mahaiaren alde batetik bestera gurutzatzen du.
- Norvegiak kapela atzerantz jartzen du eta Alemaniarengana joaten da eta "mira" esaten dio. Ondoren biak niregana etorri dira eta gauza bera hasi dira esaten: "mira, mira".
- Norvegiak eta Italiak kotxea pasatzen dute mahaiaren alde batetik bestera.
- Autoa arrastatzen du pilotari ematen saiatzeko.

#### FINLANDIA:

- Bufanda jarri du lepoan eta dardarka hasten da hotza baldin badu bezala.
- Ezkututzen da oihal baten atzean eta besteei sustoa ematen die "BU" esanez.
- Plastikozko edalontzia hartzen du eta saiatzen du urez betetzen.
- Finlandiak Portugal ikusten du edalontziak jartzen pilotarekin botatzen saiatzeko eta gauza bera egiten du.

#### HOLANDA:

- Oso lasai eta lotsati ibili da denbora luzeena.
- Inorengana hurbildu da, eta besteek bere espazioa inbaditzen zutenean, beste leku batera joaten zen.
- Pilotekin ibili da, baina jolastu gabe, bakarrik hauek eskuan izaten, eta besteek pilotak nahi zituztenean, ematen zien, ezer esan gabe.
- Musika tresnak gustatu zaizkio eta ukelelearekin eta marakekin ibili da musika sortzen.

#### ITALIA:

- Pilotak botatzen hasi da eta bere lagunak haien atzetik joan egin dira hauek hartzeko asmoz. Behin pilotak hartzean, berriro ere Italiari ematen zizkioten pilotak eta honek berriro ere pilotak botatzen zituen.
- Jostailuzko monopatina erabili du bizkarra hatz egiteko.
- Kotxe dezente bildu ditu eta txoko berean ibili da hauek eskuan izanda jolastu gabe, eta besteak etortzen zirenean kotxeen bila bat ematen zien bakoitzari.

#### ALEMANIA:

- Honek berriro ere kapela hartzen du, buruan ipintzen du eta ez du kentzen saio osoan.
- Ukelelea hartzen du eta jotzen du, eta musika sortzean harridura aurpegia jartzen du.
- Italiarekin jolasten du pilota airera botatzera eta berriro ere hartzera.
- Bi eskularruak jantzi eta pilota gelditzen du, Frantziak tiroak botatzen dizkion bitartean, eta oinarekin kolpeak ematen dizkio ere.
- Alemaniak eta Finlandiak kotxeak pasatzen diote elkarri lurretik arrastatzen.

- Edalontziak sakabanatu eta batera jartzen ditu berriro.

#### FRANTZIA:

- Tiroak botatzen dizkio Alemaniari oinarekin.
- Edalontziak sailkatzen ditu eta pilotak sartzen ditu barruan eta pilota bat edalontzi batean ez bada sartzen beste batean sartzen du.
- Pilotak panderetan sartzen ditu eta hauek ateratzea ezinezkoa egiten zitzaionez, niregana jotzen du laguntza eske.

#### ESTONIA:

- Honek, Alemania ikusi duenez kapelarekin, beste kapela bat hartzen du eta Alemania imitatzen du; hau da, kapela atzerantz jartzen du buru gainean.
- Pilotari ostikadak ematen dizkio uneoro eta paseoak ematen ditu besteek nola jolasten duten behatzen.
- Pilotak botatzen ditu eta haien atzean joaten da.

#### PORTUGAL:

- Portugal, Norvegiaren atzetik segika ibili zen polizia kotxearekin "nino" eta polizia esaten.
- Frantziak pilota eskatzen dio eta honek ematen dio.
- Eraikuntzak egiten ditu edalontzi eta pilotekin.
- Oihalak hartzen ditu eta besteei gaineratik botatzen dizkie.
- Edalontziak jartzen ditu ilara bat sortuz, eta pilota botatzen du hauek erortzeko asmoz; hau da, boloetan bezala.

#### ESPAINIA:

- Pilotak saskiratzen ditu kapelan.

- Denbora guztian egon da polizia kotxearekin espazio batean, beste objektuekin jolastu gabe edo bere kideekin jolastu gabe.

#### Hirugarren eguna 2023/03/20

Gaur, aurreko egunean bezala, umeek besoak irekita eta irribarre batekin jaso ninduten. Batzuek, gainera nire izenez deitu ninduten. Ikasle berri bat aurkitu nuen eta irakasleak aipatu zidan guztiak ezagutu nituela iada. Hala ere, gaur bi ume falta egin ziren, beraz 8 umeekin aurrera eraman nuen saioa.

Orokorrean, gaurko egunean gehiago mozorrotu egin ziren eta atentzio gehiago erakutsi zieten oihalei; izan ere, kapelak aparte, zapiak, gorbatak eta bestelakoak erabili zituzten. Bestetik, denbora luzez egon ziren gehienak pilotak jaurtitzen eta haiengana berriro ere joaten; batak hori egiten bazuen besteek gauza bera burutzen baitzuten. Egozentrismoari begira, esan beharra daukat, askotan nabari zela eta “mio,mio” eta bestelako esapideak esaten zituztela, baina gero eta gehiago jolasten eta laguntzen ziren haien artean. Azkenik, oro har, edozertarako laguntza eskatzen dute, baina batez ere niri edo tutoreari.

Bakoitzaren analisisia:

FINLANDIA:

- Edalontziekin esperimentazioak egiten ibili da; hau da, hauek guztiak biltzen eta dorre bat eraikitzen eta gero edalontziak berriro ere sakabanatzen.
- Saiatzen da bongoa botatzen pilota batekin (boloak balira bezala).
- Kapa jarri du eta egiten du “superman”-a (besoa altxa eta korrika egin). Haien kideek hori ikusita, beste oihal batzuk hartu dituzte.
- Finlandiak, Norvegiak eta Alemaniak jolastu dute elkarrekin pilotarekin eta ezkutaketan (pilotarekin harrapatu behar zuten elkar).
- Finlandiak edalontziak eskatu dizkio Frantziari eta honek ematean, “gracias” esan dio.
- Finlandiak eta Alemaniak elkarrekin jolastu dute pilota batekin beste pilota bati ematen.



#### ESPAINIA:

- Espainiak galdetu zion beste bati zer jartzen zuen kotxean eta erantzunik ez zuenez jaso niregana etorri zen eta niri galdetu zidan. Polizia jartzen zuela esan nionean, besteengana jo zuen eta hasi zen esaten “begira, polizia”.
- Kapela jarri du buruan eta uneoro esaten ari zen: “mi gorra”.
- Kotxearekin ibili da denbora osoan eta besteei egin “nino-nino” (polizia).

#### NORVEGIA:

- “Pelota, pelota” esaten du pilota nahi duenean.
- Finlandiak, Norvegiak eta Alemaniak jolastu dute elkarrekin pilotarekin eta ezkutaketan (pilotarekin harraparatu behar zuten elkar).
- Pilota pasatzen edalontzi batetik bestera ibili da.
- Eskularrua jarri du eskuan bera bakarrik.
- Norvegia eta Frantzia paseak ematen ibili dira pilotarekin. Oinarekin aspertu direnean, eskuarekin hasi dira egiten.

#### FRANTZIA:

- Pilotak sartu egin ditu edalontzian eta gero hauek jaso egin ditu eta Portugali eman dizkio, honek eskatu gabe.
- Frantzia eta Alemania kotxea pasatzen ibili dira mahai bateko alde batetik bestera.
- Eskularrua ipini du bera bakarrik eta besteei erakusten joan egin da.
- Seriazioak egin ditu pilotekin; handienetik txikienera.
- Edalontzietan bueltak eman dizkio lurrean.

- Norvegia eta Frantzia paseak ematen ibili dira pilotarekin. Oinarekin aspertu direnean, eskuarekin hasi dira egiten.

#### ALEMANIA:

- Alemania eta Finlandia pilota batekin beste pilota bati ematen saiatzen egon dira, ezinean zeudenez, gehiago gerturatu dira eta gauza bera egin dute.
- Ukelelea jo egin du eta besteak gerturatu dira eta dantza egin dute.
- Alemania saiatu egin da Espainiak jolas dezan; objektuak eskaintzen dizkio eta eskua ematen dio.
- Kapela jarri du beste egunetan bezala.
- Finlandiak, Norvegiak eta Alemaniak jolastu dute elkarrekin pilotarekin eta ezkutaketan (pilotarekin harraparatu behar zuten elkar).
- Pilota jaurti eta haren atzean joaten egon da denbora luzez.
- "Zer polita" esan du (kotxea).
- Portugalen pilotak gelditzen ibili da.
- Alemania niregana etorri da eta kapela buruan jarri dit eta nitaz barre egin du.

#### PORTUGAL:

- Marakekin soinua sortu du, eta gustuko izan duenez beste musika-instrumentuak hartu ditu eta saiatu egin da denak batera jotzen.
- Pilotak jaurti egin ditu eta Alemania hauek gelditzen saiatu da (futbola).

#### ESTONIA:

- Uneoro gauzak jolasteko eskatzen ibili da, baina objektuak libre zituenean ez zituen nahi, bakarrik nahi zituen besteak zituztenean.

## HUNGARIA:

- Ukelelea jotzen bili da.
- Saiatu da kotxeekin pilotari ematen eta ematean "pumba" esaten zuen.
- Monopatinarekin jolasten ibili da eta saiatu da saltoak egiten.
- Katamarkan ibili da leku batetik bestera joaten eta galdetu diodanean zergatik ez zen oinez joaten, helarazi dit nahiago zuela horrela.

### Laugarren eguna 2023/03/21

Gaurko egunean ere umeei besoak irekita eta irribarre batekin jaso ninduten. Gaurko saioan, 8 haur aurkitu nituen eta saioaren azken etapan, haiengandik agurtzea aukera izan nuen. Gaurko eguna, pixkat desberdin antolatu nuen; izan ere, materialak eta objektuak ikasgelaren erdialdean utzi nuen dena elkarrekin eta bertako materiala ez genuen jaso, aukera zuten nik eramandako materialarekin jolasteko, ikasgelako materialarekin jolasteko edo nahi izatekotan guztiarekin jolasteko.

Orokorrean, esan dezaket, denbora luzeagoa eman zutela nik eramandako materialarekin jolasten; hala ere, guztiak guztiarekin ibili ziren; hau da, zerbaitekin aspertzen zirenean, beste gauza bat hartzen zuten aurreko egunetan bezala, baina gaur material gehiago zituztenez, nabari zen ez zirela aspertu. Izan ere, umeei hori asko gertatzen da, oso laster aspertzen dira eta beste gauza batzuetan jartzen dute arreta. Bestetik, aipatu dezaket ere, haserretzeko oso erraztasun handia dutela; batez ere, zerbaitekin nahi dutenean era beste batekin hori duenean. Hala ere, haserre hori oso laster pasatzen zaie eta horretaz ahazten dira eta jolasteari ekiten diote berriro. Beste bitxikeri bat bada, gehienek gauza asko hartzen dituztela izateagatik, gustuko dutelako hauek izatea, nahiz eta gero ez jolastu, eta besteak etortzen direnean objektu hori eskatzera, haserretzen dira.

Bakoitzaren analisia:

## ALEMANIA:

- Kapela jarri du buruan eta aspertzen zenean izateaz, besteengana hurbiltzen zen eta kapela haien buruan ipintzen zuen.

- Pilotak kaxoietan ezkutatu zituen eta gero bueltatu zen eta ez zen oroitzen zer kaxoian utzi zituen eta kaxoia irekitzen hasi zen pilotak aurkitu arte.
- Jaurti ditu pilotak zakarrontzira (saskibaloia).
- Frantziak eta Alemaniak jolasten dute ea nork jaurtitzen duen pilota altuago.

#### FINLANDIA:

- Edalontziak sakabanatu ditu eta berriro bata bestearen gainean ipini ditu.
- Pilota jarri du edalontzian eta gorantz jaurti du eta gero edalontzi horrekin berriro ere hartzen saiatzen ibili da.
- Finlandiak eta Hungariak hankak ireki dituzte eta bata besteari egiten dio “caño”; hau da, pilota zeharkatu hanken artetik.

#### NORVEGIA:

- Ukelelea jo eta abestu egin du.
- Hungariak ukelelea kolpatzen zuen hasieran eta Norvegia joan egin da eta esan dio kordak igurtzi behar dituela soinua sortzeko.
- Monopatinaren gurpila erabili du “pua” bat bezala; hau da, ukelelearen kordak igurtzi ditu musika sortzeko.
- Norvegiak, Alemaniak eta Portugalek, bakoitzak instrumentu bat jo egin du eta hiruon artean musika sortu dute.

#### PORTUGAL:

- Pilota jarri du edalontzian eta gorantz jaurti du eta gero edalontzi horrekin berriro ere hartzen saiatzen ibili da.
- Portugal haserre dago Finlandiak duen kotxea nahi duelako eta honek uzten dio berarekin jolasten kotxearekin, bata besteari kotxea pasatuz.
- Kapela eta eskularrua jarri ditu.

- Frantziak eta Portugalek pilota edalontziaren barruan ipini dute eta egin dute edaten balute bezala.
- Italia eta Portugal saiatzen egon dira pilotak apalategietan sartzen, hauek botatzen.
- Portugal pilota pasatzen ibili da edalontzi batetik bestera eta lortzen zuenean esaten zidan: "mira, lo has visto?".

#### HUNGARIA:

- Hungaria nirekin ibili da jolasean pilotarekin, bata besteari pilotarekin paseak egiten.
- Saiatzen egon da pilota pasatzen besteen hanken azpitik eta lortzen zuenean pozik jartzen zen.
- Finlandiak eta Hungariak hankak ireki eta bata besteari egiten dio "caño".
- Frantzia eta Hungaria pilota jaurtitzen eta boterik eman gabe hartzen egon dira jolasean.

#### ITALIA:

- Italia saiatu da aldatzen Norvegiari ukelelea bi piloten ordean eta honek ezetz esan dio buruarekin. Hala ere, aurrerago baietz esan dio "Si" hitza erabiliz.
- Italia eta Portugal saiatzen egon dira pilotak apalategietan sartzen, hauek botatzen.

#### FRANTZIA:

- Frantziak eta Alemaniak jolasten dute ea nork jaurtitzen duen pilota altuago.
- Frantzia eta Portugal pilota edalontziaren barruan sartu dituzte eta egiten dute edaten badute bezala.
- Edalontziak sakabanatu eta berriro sartu egin ditu.
- Frantzia eta Hungaria pilota jaurtitzen eta boterik eman gabe hartzen egon dira jolasean.

## HOLANDA:

- Ukelelea kolpatu du hasieran eta Norvegia joan eta esaten dio kordak igurtzi behar dituela soinua sortzeko.
- Pilotak bota ditu eta haiengana joan da.
- Ostikadak ematen dizkio pilotari uneoro.
- Holanda, aurreko egunean bezala, denbora luze ibili da bakarrik izkin batean, eta bere kideak etortzen zirenean beste espazio batera mugitzen zen bertan egoteko.